

DATORRENA

Sar hitza

OIER IMAZ ALIAS > 3

NERABEEN GARRASIA: Teknologia eta
gaztetxoaren osasun mentala, serio
heldu beharreko kontua > 22

2023ko abenduaren 16a | XVII. urtea • 855. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ZORTZI IKUSPEGI PROPIO MIRIBILLA
KOLEKTIBO BATERAKO



The Purple Meridians, emakume zinemagileen topaketa argigarriak ospatu ziren Durangon 04

Ikusmira: Munduaren belarriak eta Gazako txilioa 07

Bougainville, independentzia gauzatu ahal izateko babes bila Washingtonen 09

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala: zortzi ikuspegi propio arratsalde kolektibo baterako 12

Maitane Ormazabal eta Telmo Lazkanori elkarrizketa 22

Adimen Artifiziala eta ziberiruzurren sofistikazioa 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Oier Imaz Alias:** Sar hitza
- 10 **Gilen Txintxurreta Beitia:** Bona fide
- 11 **Mikel Zubimendi Berastegi:** Joseba Asiron eta EH Bildu, gure Jerusalemgo altxorak
- 20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Hezkuntza eraginkorra
- 21 **Erika Lagoma Pombar:** Jaio. Plateruena. Hil
- 26 **Alai Zubimendi**
- 27 **Maidier Iantzi Goienetxe:** Aski gutxi denean inoiz ez da aski
- 27 **Xabier Mikel Errekondo:** 21 urte!
- 30 **Maitena Usabiaga Sarasua:** Harreman neoliberalak



{ datorrena } Oier IMAZ ALIAS

Sar hitza

Ez naiz lehena, nire aurretikoa da dena, baina historia hau nirekin hasten da» (Jon Benito, 2010. Ez naiz lehena. Atal honetan atzeritik datorrenari begira izan dugu Gorka Elejabarrieta azken 15 urteetan. Hilabetero behin, 150 artikulurorotara. Beti fin, zuzen eta argi. Euskal Herritik nazioartera begira; eredu bila, bidelagun bila, babesleku bila. Eta, alderantziz ere, nazioartetik Euskal Herrira; nor gara gu besteen begietan? Agendetan? Etorkizuneko proiektuetan? Bere azken zutabearen zioen moduan, «azken 15 urteetako nazioarteko politikaren kronika eta nire ibilbide pertsonalaren narrazioa dira». Zentzu horretan, gaurdanik hemen irakurriko duzuenaz ez da izango segida bat. Atzeritik datorrenari begiratuko diot, baina nire ibilbide pertsonal eta profesionaletik.

Nire aurretikoa da dena. Atzeritik datorrenari begiratuko diot. Batetik, berariaz begiratuko diot atzerrian datorrenari. Finean, gu ere atzerrian gertatzen denaren parte baikara, parte txikia bagara ere. Bestetik, begiratuko diot atzeritik guri datorkigunari. Aro global eta digitalak atzerriaren eta herriaren arteko mugak asko lausotu baititu. Aldiz, bietan saiatuko naiz, aktualitate urruntzen eta sakoneko hari-muturrei heltzen. Arrazoiak ez da aktualitatea azalekoa kontsideratzen dudarik. Zailtasunak dauzkate egungo erritmoarekin batera mugitzeko. Eta ez daukat, Gorkak bazuen bezala, lehen bistada batean garrantzitsua dena eta ez dena bereizteko gaitasun hori. Nik denbora pixka bat behar dut.

Baina istorio hau nirekin hasten da. Eta atzeritik datorrenari nire intereseko gaietatik begiratuko diot. Besteak beste, hobe delako dakizunaz hitz egin.

Batetik, lankidetzak. Herriarren artean, eragilearen artean, sindikatu eta enpresa, alderdien artean... Ezinbestekoa da lankidetzak etorkizunak egun pausatzen dizkigun erronkei aurre egiteko, entzuten dugu han eta hemen. Eredu desberdinak ere badaude: kooperatiboa, komunitarioa, asoziatiboa, publiko-pribatua, eraldatzailerik... Nirea epikarik eta mistikarik gabeko begirada da.

Zerk egiten du lankidetzak iraunkor? Noren artean? Ekarpenik egiten al du? Egiten badu, zein da? Ez badu egiten, zer bestelako aukera daude? Zein testuingurutan?

Bestetik, humanitateak. Konbentzitutak nago hipermodernitatean nabigatzeko beharrezkoak ditugula ideiak, kontzeptuak, teoriak... funtsean, gure bizitzak ardatzen dituzten galderak, oinarritzakoak, ez direlako horrenbeste aldatu. Ezta erantzunak ere. Adibidez, Immanuel Kantek zioen, Bake Betierekoaz pentsatuz, 1791. urtean, egoera naturala zaiola gizakiari gerra. Gerraren kontra errepublikaren tresnak defendatzen zituen testu hartan. Horietako bat zen errepublikan herritarrek dutela gerrara joateko erabakia hartzen. Gakoa da norbe-

Nirea epikarik eta mistikarik gabeko begirada da. Zerk egiten du lankidetzak iraunkor? Noren artean? Ekarpenik egiten al du? Egiten badu, zein da? Ez badu egiten, zer bestelako aukera daude? Zein testuingurutan?

rak erabaki behar duela gerrara joatea. Ez da, aldiz, berdin, baldin eta agintariak erabaki badezake herritarrak gerrara bidaltzea. Labur, Kantek iradokitzen zuena zen gerrak ekiditeko bide bat badela gerra deklaratzeko agintariak frontera bidaltzea.

Amaitzeko, batzuetan bada ere, aktualitate gordina: «Egoera azkar ari da okertzen, potentzialki atzeriazinak izango diren ondorioekin palestinarrentzat eta, oro har, bakearentzat eta segurtasunarentzat eskualdean. Amaiera hori kosta ahala kosta saihestu behar da. Nazioartean erantzukizuna da bere eragin gaitasun guztia baliatzea egoera baretu eta krisi honi amaiera emateko. Segurtasun Kontseiluko kideei eskatzen diet presio egin dezatela hondamendi humanitario bat saihesteko. Berrir eskatzen dizut su-eten humanitariora aldarrikatzeko. Presazkoa da» (Antonio Guterres, 2023/12/06). •

Abenduaren 8a egun berezia izan zen Durangon. Landako gunetik ehun metro eskasera egin baitzituzten The Purple Meridians topaketak. Egitasmoaren hirugarren edizioa izan zen eta, aurreko biak Katalunian izan ondoren, Euskal Herriko txanda heldu zen. Ekimenaren helburua izan da emakumezkoek zinema egite-rako orduan aurkitzen dituzten zailtasunak partekatzea, baina baita euren arteko elkar-lana aukera bat den aztertzea ere, distantziak distantzia. 10.00ak aldera parte-hartzaile gehienak Durangoko Euskalte-gian zeuden, bai han bertan fisikoki, zein bideodei bidez. Izan ere, nazioarteko gatazkak eta politika migratzaileak begien bistakoak izan ziren topaketetan, arrazoi anitzengatik. Hasteko, bi zinemagile kurdu ezin izan ziren bertaratu. Bat Turkiak jartzen dizkion mugen ondorioz, eta bestea Schengen segurtasun espazioak ez duelako aitortzen pasaporte siriarra. The Post (Film) Collectiveko beste bi kidek ere pantailaren bestalde-tik jarraitu zituzten solasaldiak, errefuxiatuak baitira eta ez baitaukate baimenik euren egungo kokapena uzteko.

Edonola ere, pantaila ez zen izan oztopo, lehen hitzar-tzean, errealitateak zaplazteko izugarria emateko. Ainhua Olasok aurkezpena egin bezain pronto, Mira Sidawi palestinarrek mahai gainean jarri zuen topaketaren gainean hegan ari zen gaia: Gazako sarraskia. Sidawi Libanon bizi da eta bere filmak, “The Wall” – Irudienean proiektatu zena egun berean–, umorez islatzen ditu Sabra eta Shatilan bizi di-



GERRA, ZINEMA ETA ZAINZA

The Purple Meridians, emakume zinemagileen topaketak Durangon

 **KULTURA /** Aitor AIARALDEA

The Purple Meridians nazioarteko topaketak Durangon izan ziren abenduaren 8an, eta Kurdistango, Palestinako, Italiako, Euskal Herriko eta Kataluniako emakumeak, euren artean Itziar Ituño, mintzatu ziren zinemari, gerrari eta zaintzei buruz.

ren gazte palestinarren ametsak, pelikula labur bat grabatzen saiatzen diren lau lagunen abenturen bidez.

Hala ere, filmaren aipamen handirik ez zen egon. Amorraren eta tristuraren lekuko bizia izan zen Sidawi, eta malkoen artean gogoratu

zuen herri palestinarren esku-bide guztiak ukatu zaizkiola kolektiboki –defentsarako eskubidea, lurralderako eskubidea...–, baina baita norbana-koei ere, eta deskribatu zuen zein latza den Libanon errefuxiatu izatea. Hain zuzen, berak lanari esker errefuxiatu kan-

palekua uzteko aukera izan zuen, baina jabetza pribatua – etxea, alegia– oraindik kimera da berarentzat.

Palestinarraren hitzen ondoren, isiltasuna iritsi zen topaketetara, berunaren pisua-rekin, baina parte-hartzaileek laster apurtu zuten isilunea, herri palestinarri elkartasuna adierazteko.

Horren ondoren, zaila izan zen haria berreskuratzea, baina Kristina Beresain kazetariak heldu zion betebeharrari. Goizeko txandak gerra zuen ardatz, eta kazetari euskaldunak, hain zuzen, eskarmentu handia dauka gatazka ahaztuetan buru-belarri sartuta dauden herrietan; besteak beste, Palestinan eta Saharan. Azken gatazka politiko hori “basamortuen basamortu” izendatu zuen, eta gogoratu zuen Gazan zegoela 2005ean, egungo sarraskia nolabait forma hartzen hasi zenean, armada israeldarraren irteerare-

Topaketaren irudi orokorra.
Zinemagile batzuk pantaila bidez parte hartu behar izan zuten.
Aitor AIARALDEA

kin eta lotsaren harresiaren eraikuntzarekin.

ROJAVATIK SEVINAZ EVDIKE

Gatazka ahaztuak aipatu eta gero, Sevinaz Evdikeren txanda heldu zen. Evdike Rojavatik konektatu zen topaketara, eta zinemaren garrantzia goraipatu zuen, errealtatea eraldatzeko tresna gisa. Berez, kurdua Zinemaren Komunako sortzaileetako bat da eta proiektu horrek Siriako Ipar Ekialdeko herritarrek zein kanpotik etorritako boluntarioak barnean biltzen ditu. Bere errealtateari dagokionez, zuzendariak deskribatu zuen zein zaila den egun Siriaren mende dauden hiri kurduetan bizitzea, drone turkiarrek etengabe bonbardatzen baitituzte autoak eta ibilgailuak, komunitateko lider politikoak, militarrek eta kulturalak erailtzeko.

«Arraroa da ezin zarelako ohitu, baina are arrotzagoa da ohitzen zarenean», aipatu zuen Evdikek. Nabarmendu beharra dago militar turkiarren jomugan egon daitekeen herritar bat Nariman Evdike bera dela, hau da, Sevinazen ahizpa. Autoadministrazioaren Jazira Kantoiko Kultura Ministroa da Nariman, eta Euskal Herria bisitatu zuen duela bi urte, Kobane eta Durangoren senidetasun akordioaren testuinguruan.

Rojava alde batera utzi gabe, Lara Vilanova izan zen hurrengoa bere ekarpena egiten. Katalana argazkigintza zuzendaria da eta, adibidez, “Sinjar” eta “The return: Life after ISIS” proiektuetan parte hartu du. Azken dokumental horretan Alba Sotorrarekin aritu zen elkarlanean Estatu Islamikoko Mendebaldeko emakumeen patua azaltzen; kurduen errefuxiatu kanpa-

Nazioarteko gatazkak oso begien bistakoak izan ziren: bi zinemagile kurdu ezin izan ziren bertaratu eta The Post (Film) Collectiveko bi kide ere ez, errefuxiatuak direlako

Ainhua Olasok aurkezpena egin bezain pronto, Mira Sidawi palestinarrak mahai gainean jarri zuen hasieratik topaketaren gainean hegan ari zen gaia: Gazako sarraskia

lekuetan harrapatuta, gizarte siriarrak ez baititu euren artean nahi eta euren jatorrizko gobernuek ez baitute herriratzeko gogorik ere.

Vilanova azaldu zuen herri kurduaren borrokara hurbildu zela, bere ustez, munduan gertatzen ari den iraultza demo-

Lara Vilanovaren hitzartzea. Bere ustez, kurduen borroka munduko iraultza demokratiko eta feminista garrantzitsuenak da.
Aitor AIARALDEA

kratiko eta feminista garrantzitsuenak delako. Aldi berean, Ekialde Hurbilean lan egin izanak begiak ireki zizkion eta aldarrikatu zuen edozein ekin-tza politikotan ezinbestekoa dela geopolitika bera aintzat hartzea, Palestinan, Kurdistanen edo munduko beste txoko batean gertatzen diren gatazkek harremana baitute.

Itziar Ituñok ere tartea hartu zuen zenbait esperientzia partekatzeke, eta Palestinari elkartasuna adierazi ostean –eta hurrengo egunean Gernikan egon zen ekitaldian parte hartzeko deia zabaldua–, aitortu zuen lotura handia sentitu zuela parte-hartzaile guztiekin. Halaber, azaldu zuen zinemaren ere, boterearen edo dis-

kurtso hegemonikoaren kontrako jarrera duen edonork boikot kanpainak pairatzeko arriskua duela, berari gertatu zitzaion moduan.

POLITIKA MIGRATZAILEAK

Gerraren beste fronte ezkutua da politika migratzailea eta mugak ixteko joera. Hain zuzen, hori izan zen The Post (Film) Collectiveren abiapuntua. Bere kideak oso bestelako ikuspuntuetatik mintzatu ziren. Greziakoa zenak argitu zuen bere hasierako asmoa itsasoari buruzko dokumentala egitea zela, baina Lesbosera heltzean konturatu zen ozeanoaren errailetatik hildakoen gorpuak heltzen zirela hondartzetara. Hori ikusita, haus-



nartzen hasi zen zer-nolako ekarpena egin ahal zuen zorigaiztoko bidaia horietako protagonistek eurek zinemaren bidez azaltzeko euren bizipenak eta traumak, haien ahotsa ordezkatu gabe.

The Post (Film) Collective agertu zen horrela, eta Siria zein Buryatiako kideek ere parte hartu zuten eztabaidan, euren kasuan telematikoki, biak ala biak errefuxiatuak baitira, oso bestelako ibilbideak izanik ere. Siria, bistakoa denez, 12 urteko gerran itota dago. Buryatia, aldiz, Errusiar Federazioko errepublika da, Siberian, eta bertako herritarrak salatu zenez, errusiarrek kolonizatu dago: «Ezin da egon hain herrialde handirik kolonizatorik gabe, eta jadanik Buryatiako jatorrizko etnia gutxiengoa da».

The Post (Film) Collective, bide batez, deskribatu zuen nola egiten duen lan zinema jaialdiekin: «Ez gaude jaialdietan kolorea emateko edo ezer zurtzeko. Gure helburua da errefuxiatuen traumak eta minak erakustea, eta horregatik, oso klausula zurrunik sinarazten dizkiegu antolatzaileei».

ZAINITZA ERDIGUNEAN

Arratsaldeko eztabaidaren hitzaurrea Irudienean egin zen eguerdian, non Mary Jirmanus Sabaren “A labor theory of artistic value” film laburra ikusteko aukera eman zuten. Pelikula abiapuntua izan zen bigarren saiorako eta, Ainhoa Olasok aitortu zuen moduan, Euskal Herrian egondako greba feministaren ondoren, irrikan zegoen zaintzari buruzkoak entzuteko.

Dena den, sentimendu horrek berehala egin zuen topo errealitatearen gordintasunarekin, Mary Jirmanus Sabaren senarra palestinarra baita, eta etxean egoera nola bizitzen

ari zen islatu baitzuen, bere bikotearen lagunak eta senideak hiltzen ari ziren une horietan. Esperientzia horiek giroa hoztu ordez, nahikotxo berotu zuten, eta beste zinemagileek euren elkartasuna adierazita, sortutako loturak zinema eta zaintzaren harremanean sakontzeko parada eskaini zuen.

JENIO ARTISTIKOA

Hain zuzen, Mary Jirmanus Sabaren film laburraren muina probokatzailerik bezain argia da, eta eztabaida fokuratzen du zaintzen eta amatasunaren zaman. Emakume batek bere seme-alaben ardura hartu behar badu, inoiz ez du izango denborarik bere gaitasun artistikoa garatzeko. Hori historian zehar gertatu bada, jenio artistikoa-ren mitoa –gizonezkoa eta zuria– kolonizazioaren emaitza gisa agertzen da. Ingalaterrako industrializazioa ezin bazen gertatu Kingston eta bestelako

Sevinaz Evdike Rojavatik konektatu zen, eta errealitatea eraldatzeko zinemak duen garrantzia goraiatu zuen; are gehiago Turkiak etengabe zigortzen duen lurraldean

Mary Jirmanus Sabaren «A labor theory of artistic value» film laburra aukera ederra eskaini zuen zaintzaren inguruko gogoeta kolektiboa egin eta plazaratzeko

Kristina Beresain eta Itziar Ituño, Durangoko topaketaren une batean.
Aitor AIARALDEA

kolonietan egindako arpilatze barik, gizonezkoen artelanak ezingo lirakeke existitu amek edo bikoteek egindako zaintza lanik gabe.

Adierazpenak –umorez egindakoak, gainera– bere zinemagile kideen miresmena piztu zuen eta bakoitzak bere bizipenak azaleratu zituen. Esaterako, Ahu Ozturk kurduak oroitu zuen nola bere ekoizleak behin behartu zuen nazioarteko zinema jaialdi batera joatera, seme-alabak gaxorik zeuden bitartean. «Erru-

dun sentimendua eragin zidan hori egin behar izateak», onartu zuen.

Claudia Tosi italiarrak antzeko eskarmentua zuen: «Nik nire ama zaindu behar izan nuen hainbat urtez. Ez zuen gaixotasun larriarik, baina ezin nuen bakarrik utzi. Bitartean, nire lagun guztiak leku batetik bestera joaten ziren eta ez zuten ulertzen nik ez egitea. Eta gehiago esango dut. Seme-alabak zaintzeko bidaiatzeari eta bizitzeari uko egiten diozunean, jendeak ulertzen du, gutxi gorabehera, baina gizaki nagusi bat zaintzeko egiten duzunean, inork ez du ulertzen!» aitortu zuen, barreak eraginda.

Tosik zaintzen defentsa sustua egin zuen: «Hasieran izorratzen zara beste leku batean egon nahi duzulako, baina onartzen duzunean, nolabaiteko dimentsioa ematen dio zure bizitzari».

ZINEMAGILE DESGAIUAK ZER?

Durangora bertaratzeko baimena lortu ez bazuen ere, Lisa Calan zuzendari eta ekintzaile kurduak ere bere alea jarri zuen The Purple Meridians topaketetan. Diyarbakirreko sortzaileak 2015ean galdu zituen hankak. Zehazki, HDP koalizio kurdu ezkertiarren ekitaldi batean Estatu Islamikoak lehergailua jarri zuen, eta erasoan jasandako zauriek bizitza erabat aldatu diote.

Bere iritziz, munduak ikuspegia aldatu behar du: «Pertsona desgaituok zerbait ez bage-nu bezala ikusten gaituzte, baina guk eskubide berak ditugu. Uste dut mugimendu feministak berak ere ez duela gai hau nahikoa lantzen». Zailtasunak zailtasun, Calanek mezua bidali zuen, grabaketa baten erdian zegoelako.





IKUSMIRA



MUNDUAREN BELARRIAK ETA GAZAKO TXILIOA

«Gaur bizirik nago». Horrela erantzuten diote Gazan «zer moduz» galderari. Dagoeneko 70 egun, eta hildakoak 19.000ra iristen. Zaurituak 50.000tik gora, osasun baliabiderik gabe, pilatuta, garbitasunik gabe eta, erietxean egonagatik, tirokatuak izateko arrisku bizian. Kanean gosea, noraeza eta beldurra. Hildakoak hildakoen gainean, minari mina dario eta esperantza lehertu egin da, txiki-txiki eginda erortzen da zerutik lurrera. Oihu bat existitzen al da inork ez badu entzuten? Munduaren begiak ohitzen ari dira pantailatik ikusten duten giza sarraskira. Batzuetan begirada apartatzen dute, hainbeste sufrimendu ez zaielako kabitzen. Noiz hasiko dira munduaren belarriak Gazako txilioa benetan entzuten? Gazan bizirik egotea kondena bihurtu da, bizirik dauden askok aitortzen dutenez, nahiago lukete bonbek birrindutako harrien artean hilda egon egun bat gehiago Gazan bizi-raun baino. Izan ere, zenbat hildako kabitzen zaizkio bizirik dagoen gorputz bakoitzari? Amagoia MUJKA TELLERIA



GAUR8



ireki gure leihoa

BOUGAINVILLE, BABES BILA

Eskualde Autonomoko presidentea Washingtonen izan da, independentziarako babesak eskuratu nahian

Ishmael Toroama gerri-llari independentista ohia Papua-Ginea Berriaren barnean dagoen Bougainvilleko Eskualde Autonomoko presidentea da. 2019an, independentzia-erreferenduma egin zen, Bertie Ahern Irlandako lehen ministro ohia buru izan zuen prozesu batean. Herriarren %87k parte hartu zuten, eta botoen %98 independentziaren alde izan ziren. Hala ere, gaia ez atzera ez aurrera dago, Papua-Ginea Berriko Parlamentuak galdeketa emaitza noiz bozkatuko zain. Pazifikoko hartu duen garrantzi geopolitikoaz jakitun, Toroama Washingtonen egon berri da, Nazio Batuetan sar litekeen hurrengo estatuaren aldeko babes bila.

Aldamenean dituen Salomon uharteekin lotura handiagoa izan arren, XIX. mendeko banaketa kolonialek Alemaniaren mendeko Ginea Berrian jarri zuten Bougainville. I. Mundu Gerran Australiak bereganatu zuen kolonia, eta 1960ko hamarkadan Conzinc Riotinto Australia (CRA) enpresak Pangunako meatzea ustiatzeari ekin zion. Handik gutxira Papua-Ginea Berriak independentzia aldarrikatzean, beste horrenbeste egin zuen Bougainvillek Papua-Ginea Berrirarekiko, baina ez estatu berriak ez metropoli zaharrak ez zioten utzi. Pangunako kobre-erreserbek zekarten estatu berriaren esportazioen erdia.

1988an, II. Mundu Gerra ostean eskualdean egondako gatazka odoltsuena piztu zen. 20 mila lagun hil ziren, Bougainvilleko hamar biztanletik bat;

 **OZEANIA /** Urtzi URRUTIKOETXEA

2019an egindako independentzia-erreferendumean herriarren %87k hartu zuen parte, eta %98k Bougainvilleren independentziaren alde bozkatu zuen. Hala ere, Papua-Ginea Berriko Parlamentuak erabakia onartu gabe jarraitzen du. Ishmael Toroama presidentea AEBetan egon berri da egoera desblokeatzeko.

2001ean sinatutako bake-akordioan aurreikusi zuten 2019an egin zuten erreferenduma. Lau urte joan dira ordutik, eta Bougainvilleko herriarren iritzia argia izan arren, Papua-Ginea Berriko Parlamentuari dagokio hurrengo urratsa: emaitza onartzea. Datozen hilabeteetan beharko luke bozketak horrek, baina ez dirudi Estatuko Legebiltzarra independentzia onartzeko prest dagoenik.

Ishmael Toroamak erreferenduma eta gero irabazi zituen hauteskundeak, eta 2020tik da Bougainvilleko presidentea. James Marape Papua-Ginea Berriko lehen ministroa estu hartu izan du, eta bideorria ere adostu zuten: independentzia 2025ean aldarrikatu ordez, 2027ra arteko epea onartu du, baina argi du ez duela besterik onartuko. Washingtoneko Georgetown Unibertsitatean egindako hitzaldian hala esan zuen: «Ez dut B planik. Herriak independentziaren alde bozkatu zuen. Guk aurrera egingo dugu. Uste dut argi utzi dudala Bougainville aurrera eramango dugula». Erreferendumaren emaitzaren ostean, Gobernu autonomoak argudia dezake badaukala aski legimitate aldebakarreko independentzia aldarrikatzeko ere, Papua-Ginea Berriko Parlamentuak

bougainvilletarren erabakia aitortzeari uko egingo balio.

Bougainvilleko gobernu independentistak Pangunako meatzea berriz irekitzeko aukera aipatu izan du, NBEn sar litekeen hurrengo estatuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko. Gaur-gaurkoz, herriarren ehuneko hamarrek baino ez dute argindarra. 1989tik itxitako meatzea ez da berehalakoan irekiko, eta Bougainvilletik kanpoko laguntza beharko du aldi batean.

Bideragarritasun ekonomikoarekin batera, baina, nazioarteko babesak ere garrantzi berezia dauka estatu berri bat sortzeko. Geopolitikak rol berezia jokatzen du mundu guztian, baina are gehiago Ozeano Barean, AEB eta Txinaren arteko lehia argien nabari den eskualdean. Azken urteotan, historikoki Taiwan aitortu izan duten Ozeaniako zenbait estatuk aliantzak aldatu dituzte eta Txinarekin lerratu dira. Salomon uharteetako gobernua izan da Beijjingera jo due-

netako bat; AEBak ere ez dira geldirik egon, eta eskualdean lotura berriak landu dituzte. Salomon uharteetan enbaxada ireki dute, esaterako.

Papua-Ginea Berria ere Pazifikoko taulako pieza garrantzitsua da. Joe Biden bera zen bisitan joatekoa maiatzean, Kongresuan *shutdown* arriskuak etxera itzularazi zuen arte. Azkenean, Anthony Blinken estatu-idazkariarekin konformatu behar izan zuten. Ishmael Toroamak ere badaki, gehienek mapan kokatu ez arren, bere herrialdeak rol geoestrategiko garrantzitsua joka dezakeela.

Bere asmoa, AEBen babesarekin independentzia lortzea da: «Presidentetzara aurkeztu nintzenean, ez nuen Txinaren alde egin». Gainerako hautagaiak ez bezala, Toroamak dio ez zuela Beijjingen laguntzarik onartu kanpainan. Baina 2025ean, berriz ere presidentea aukeratuko du Bougainvillek, eta hautagai guztiek independentziaren alde egingo dute. Urrats hori noren esutik egin ondo hausnartu beharko dute AEBetan ere.

Joseph Marape Papua-Ginea Berriko lehen ministroa (ezkerrean) eta Ishmael Toroama Bougainvilleko presidentea (eskuinean), uztailen Port Moresbyn ateratako argazkian. AUTONOMOUS BOUGAINVILLE GOVERNMENT





Gilen TXINTXURRETA BEITIA
Arkitektoa

Bona fide

daztearen artea laburtzearen artea da, horrela zioen Anton Chejov errusiarrek bere gutunetan. Hitz gutxi-rekin asko esatea. Chejov 1904an hil zen, errusiar iraultza aurretik eta europar abangoardien loraldia baino apur bat lehenago, baina abangoardia horien espiritu apurtzailea bere esaldi horietan hauteman daiteke. Mugimendu Modernoa, arkitekturan zein artean, sinplifikazioaren bilaketa bat izan zen XIX. mendeko gehiegikeria barrokoaren aurrean. 1913an Adolf Loos txekiarrek “Ornamentua eta delitua” liburua kaleratu zuen edertasuna materialen noblezian eta forma puruen zuzentasunean aurkitzen zela argudiatuz eta apaingarriak zibilizazioaren aurreko garai baten aztarnak zirela esanez. Ez zen eskasiaren apologia bat, neurri zehatzaren bilaketa eta baliabideen erabilera egokiaren aldeko jarrera erradikal bat baizik. Versailleseko errearen aurrean, Ibizako kare zurriaren goraipamena.

Barrokoa jarrera bat da, gauza gehiago eta konplexuagoak egitea gauzak ondo egitearekin nahasten duen jarrera bat. Gehiegikeria hori gure gizartean estruktural bihurtu da eta, barkatuko didazue gai aldaketa, baina sintetizatzearen garrantziarekin hasi nahi nuen, egungo araudien gehiegikeria absurdoari buruz hitz egiteko.

Zaila da esatea non hasien den arazoa eta nor den arduraduna. Hobbes-ek “Leviathan” liburuan Estatua norbanakoen segurtasuna bermatze aldera sortutako hitzarmen kolektibo gisa definitu zuen, eta Estatua egitura legalaz baliatzen da akordio hori arautzeko. Estatu zaharren kasuan, akordio honek ehunka urte daramatza martxan, eta egitura legala gero eta konplexuagoa joan da bilakatzen, ez hori espresuki bilatzen zelako, burokraziaren funtzionamenduaren inertzia berak horretara daramalako baizik. Zalantzak ez dira ongi ikusiak, eta lege berrien bidez bilatzen da

hauek argitzea. Honela, edozertarako, gero eta baldintza gehiago, legedia gehiago eta dokumentazio gehiago bete beharra dago, helburuen beraien inguruko eztabaida gero eta urriagoa den bitartean. Proposamenen legezkotasuna bihurtu da eztabaidagai, haien egokitasuna beharrean.

Hirigintzan lan egiten dugunok egunero egin behar diogu aurre haien artean koherente beharko luketen, baina beti ez diren arau, lege, dekretu eta gidalerro ezberdinen mendi bati. Horrenbestekoa da nahasmena, non, plan bat onartzen denerako, izugarri ohikoa den plan hori arautu duten legeak beraiek aldatu izana, urteetako lana pikutara bidaliz eta bitartean ezer egitea debekatuz, edo are okerrago, egin behar ez liratekeenak baimenduz. Egoera horrek udalen egunerokotasunean izugarritzko arazoak sortzen ditu, norbanakoen proiektuetan eratzeko moduko buruhaustea, eta gizartearen barnean erresumina eta apatia. Burokrazia txarrak administrazio publikoa eta Estatua bihurtzen ditu ongizatearen etsai.

Baina horrek ez luke hala behar. Norbanakoaren askatasuna legea mutu dagoen tokietan aurkitzen dela zioen Hobbesek. Ez da harritzekoa mundu osoko proiektu kultural autonomo gehienak legearen zirrikituak erabiliz edo, besterik gabe, honi jaramonik egin gabe sortu izana. Gaztetxeei begiratu besterik ez dago.

Mezu indibidualista eta neoliberal batean erortzeko arriskuaren aurrean, Mugimendu Modernoak hartu zuen jarrera erradikala errebindikatu nahi dut. Administrazio publikoaren defentsa burokraziaren sinplifikazioa errebindikatzeko eta norbanakoak “res publikoan” parte hartzeko eta berau eraldatzeko gaitasunaren defentsa da. Horretarako, batzuetan legeak gutxitxo esan behar du sen ona bezala ezagutzen genuen horri ahotsa itzultzeko. •



David Chipperfield arkitektoaren Neues museoaren hedapena. GAUR8

{ asteari zeharka begira } Mikel ZUBIMENDI BERAŠTEGI

Joseba Asiron eta EH Bildu, gure Jerusalemgo altxorrak

Asiron, Joseba Asiron izango da Iruñeko alkate berria. Gure Jerusalemek, gure Hiri Nagusiak, agintean izango du berriz euskalduna eta abertzalea den figura maitatua. Zumea eta makila, bietan jarrai. «Gora Euskadi!» esan ala «Gora Nafarroa!» esan, gauzak berdin. Nafarroa «etorriko da», «sartuko da gero» eta horrelakoak entzutean ez dugu jada sufrituko. Adio trauma askori, agur euskal anai-arreben arteko etsaitasun mingarri eta eramanezin askori. Nafarroa ez zelako, ez delako, inora joan behar; egotea eta izatea, besterik ez zaiolako egokitzen.

Asiron alkate izatea ez da Iruñeko kontua, ezta Nafarroako politikagintza hutsa eta EH Bildu-PSN akordio soila ere. Asiron denon alkatea da, euskaldun eta abertzale garen guztiona. Izan lehorreko ala itsasaldeko, mendialdeko ala lautadako, hiriko edo herriko, gazte edo zahar, eme edo ar. Hori da eta hori baino gehiago ere bada: *larreostia* bat, Euskal Herriarentzat mugarri bat, gure politikarako argia. Sentimendu abertzaleen, sinbologiaren indar ezkutu eta agerikoen eztanda frenetikoa da, gure herriaren memoriaren kondentsazioa. Perspektiban eta baloreen jarri beharrekoa, nondik gatozen eta nora goazen erakusgarri, aitzakiarik gabe ospatu beharrekoa da.

Sekulako marka da EH Bildu, sekulako marka egin du. Sekulako estrategia azkarra landu du. Baina estrategia orok bere kontra-estrategia du, ahazten eta barikatzen ez duten etsaiek hor jarraitzen dutelako, Nafarroan, Madrilen, edo Bilbon. Iraganeko eskemak eta gatazkak beste bitarteko batzuekin jarraitzeko, jende oso interesatua dagoelako. Historia berridazteko interesa dutenak, iraganeko erroak eta irakasgaiak jendeak ez ulertzen saiatzen direnak, iragan jakin bat izan dutenek etorkizun bat izatea ezinezkoa dela pen-

tsaraziz. Eta saiatu dira EH Bilduren bazterketan; hori izango da euren jokoa, zaharra bezain oraingoa.

Alferrik! Eraso egingo diote Asironi eta EH Bilduri. Saiatuko dira banatzen, frustrazioak sortzen. Baina ez dira zepoan eroriko, ez dira eraman nahi lituzketen bidetik joango. Zenbat eta eraso gehiago, orduan eta indar eta boto gehiago lortzen da, eta konpromiso eta ardura handiagoz jardun. Ezustekoek eta eragozpenek ez dituzte ernegatuko, ez dira marmartien kuadrillako kide bilakatuko. Lan asko dagoelako egiteko, borroka pilo bat borrokatzeko, jende gehiago behar delako, herritarren kezka interpretatu eta aurreikuspenekin konektatzea izango dute desafioa.

Urek ezkerreko abertzaleen komunitate antolatua- ren dikeak aspaldi gaingitu zituzten. Asiron adibide, ikasi du pazientea izaten, une egokia itxaroten, estrategikoki pentsatzen, funtsezko funtsean kontzentra-

Gure herriaren memoriaren kondentsazioa, sentimendu eta poz abertzaleen eztanda frenetikoa da. Perspektiban eta baloreen jarrita, aitzakiarik gabe ospatu beharrekoa

tzen. Etorkizunari begira, kezka eta nahi eta ezin ezkutatzeke, baikor eta positibo izateko arrazoiak hor dira. Non ginen eta non gauden begiratuta, aldaketa erradikala ikusten dut, aurreikuspen handi-handiak. Asironekin, edo Otxandianorekin, gure alkate eta zinegotzi kategorikoak ikusita, ohartzen naiz harrobia badagoela, talentua erruz dakartela, energia eta gaitasun berriak, zapo herritarra. Jendeak EH Bildu aldatetarako aukera bezala ikusten duela, serioa eta konprometitua. Askorentzat aukera bakarra da, eta batzuentzat, azken esperantza. Eutsi egin behar zaio izate harro zoragarri horri. •

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

Zortzi ikuspegi propio arratsalde kolektibo bat ontzeko prest

📁 BERTSOLARITZA / Maider IANTZI • Iraitz MATEO

Gaur jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa, Bilbon. Gogotsu daude zortzi finalistak, momentua bizi nahi dute gehienek eta oholtza gainean zein azpian ematen diren aldaketak argazkitik haratago ere sumatzea nahiko lukete, oholtza gainean zein azpian.

📷 Argazkiak: Oskar MATXIN | FOKU



naiz:
irratia

ZUZENEAN ENTZUN

Finala zuzenean eta streaming bidez entzun ahal izango da Naiz Irratian, Josune Aramendi eta Eli Pagola bertsolarien iritziekin.

Bilbo, 1984. Hamar aldiz hartu du parte Bizkaiko Txapelketan, lehenengoz 2014an kantatu zuen finalean, bigarren finala du gaurkoa.

Miribillako plaza ez da berria zuretzat. Zer moduzkoa izango da itzulera?

Oso pozik eta gogotsu nago finalerako, txapelketa hasiera pixka bat errezeloz hartu nuen, baina pixkanaka eman

OIHANA BARTRA ARENAS

«Ez nuen pentsatzen hain pozik egongo nintzenik finalean kantatzeko»

diot buelta gorputzaldiari eta orain gogotsu nago. Uste dut nahiko desberdina izango dela, aurreko finaletik jada ia hamar urte dira eta uste dut final honi beste modu batean egingo diodala aurre.

Orain arteko ibilbidean nola sentitu zara?

Laurdenetan asko sufritu nuen, asko-asko, saioan bertan nire buruarekin elkarriketa itsusiak izan nituen. Aldiz, finalaurrekoan pila bat disfrutatu nuen, sekulako giroa egon zen, oholtzan oso talde polita geunden... Oso bestelako sentazioa izan nuen Lemoan, gusturago eta aldarte hobearekin egon nintzen.

Nolakoa izan da prestaketa?

Aurten txapelketa bizi izan dut txapelketatik urrun, ez naiz saio batean ere egon, ez dut jarraitu. Nire burua txapelketaren beldurretik babestu nahian bezala egon naiz, sentitzen nuelako beldur moduko batekin nindoala txapelketara; agian horregatik lehenengo saioko sentazio hori: berriro hemen, eta berriro sufritzen... Nire helburua aurten goan ahalik eta gutxien eragitea zen, eta babesten eta distantzia hartzen aritu naiz horretarako. Beste batzuetan izan dudana aurretiazko sufri-mendu hori gutxitu nahi nuen, eta pixka bat lortu dut:

nahiz eta laurdenetan saioan sufritu nuen, aurreko asteak hobeto eraman ditut distantzia horri esker.

Posible da urruntzea?

Gero eta zailagoa da. Pixkanaka bola handitzen doa eta leku gehiagotan dago presente, jendeak ere galdetzen dizu... Zaila da distantzia hori hartzea.

Lemoako saioan gai sozialak eta Euskal Herrian lekututakoak izan ziren nagusi. Garrantzitsua da?

Niretzat hori da garrantzitsua, gauza askori kantatu ahal diegu, baina niretzat behintzat bertsotan aritzearen funts handienetakoa gure kezkei kantatzea da, eta hausnarketa kolektibo batzuk egitea batzuetan oholtza gainean.

Azken finalaurrekoa zen, nolako plaza izan zen?

Gozada bat izan zen, sartu eta pasilloa egin eta oholtzara igo-tzerakoan sumatzen zen halako giro bat, sekulako animoak, aurpegi ezagun pila bat... Hazea alde nabaritu genuen hasieratik, eta batzuetan zaila izaten da sortzen diren espetatibei erantzutea. Beti ez da horrela izaten, baina nik uste dut bertsotan ere asmatzen joan ginela pixkanaka eta giro horrek ere lagundu zuela saioa hobetzen, denon arteko zerbait izan zen, oso polita.

Finalean argazki berri bat, historikoa, gainera.

Oso pozgarria izan da, lehenengo aldiz emakume gehiago egongo gara oholtzan eta niretzako kantatzeko ere kristoren gozada izango da saioa, zortzikote ederra izango da. Lehenengoz horrelako argazki bat egotea oso inportantea da, eta oso polita aldi berean.

Etxean kantatuko duzu. Zer ematen dio Bilbori finala bertan egiteak?

Niretzat garrantzitsua da Bilbon izatea, beste momentu batzuetan bertso munduan hain presentzia handia ez daukan gunen horretan egiteak ematen dio sinbolismo bat. Horrelako ekitaldi garrantzitsu bat euskaraz eta horrenbeste jende batuko duena Bilbora ekartzea inportantea da.

Zein aldarerekin igo nahiko zenuke oholtzara?

Momentuz daukadan sentimendua poza da, poz handia daukat, ez nuen pentsatzen hain pozik egongo nintzenik hemen kantatzeko. Poz hori hara eramatea eta han sentitzea nahiko nuke. Jendeak esaten didanean txapelketan “disfrutatu”, beti esaten diet ezetz, baina oraingoan banao gozatzeraz, eta saio on bat egitera, noski, grina horrekin ere banao. Momentuz poza da dudana sentimendurik handiena.

JONE URIA ALBIZURI

«‘Terrenal’ baina ideologikotik kantatu nahi nuke, gogoz nago gauzak esateko»

Algorta, 1990. 2008an parte hartu zuen lehen aldiz Bizkaiko Txapelketan, eta zazpigarren finala du. Azkenekoan, buruz burukoa jokatu zuen.

2021ean Bizkaiko Txapelketa, iaz Nagusia eta berriro Bizkaikoa, zer moduz daramazu txapelketen kateatze hau?

Lau urtero, hirutan txapelketa tokatzen zaigu Euskal Herrikoan sartzen garen bizkaitarroi behintzat, hau zikloko hirugarrena da, eta beti irisiten gara apur bat nekatuago, txapelketan esposizio handiagoa jasanda ez zara hain fresko heltzen, baina aldi berean ‘rodaje’ handiagoarekin, ez zaitu hain sorpresan harrapatzen. Nire ziklo pertsonalean, duela bi urte Bizkaikoan oso pozik bukatu nuen, Euskal Herrikoan ez hainbeste, lanarekin gustura baina emaitzarekin ez hain pozik, eta bi horien memoriarekin harrapatzen nau honek.

Prestakuntza berezirik egin duzu?

Modu bereziren batean ez dudala prestatu esango nuke, azkenean asteen pare bat aldiz elkartzen gara bertso eskola-koak, eta han entrenatu eta hortik kanpo buruak eramaten nauen lekuetara eramanda entrenatzen ari naiz, ez naiz beste munduko ezer egiten ari.

Santurtzin jokatuak finalurreko hasierako agurrean, ebakuntza gela eta zesarea ai-

patu zenituen. Eragin dizu amatasunak?

Bizitzan gertatzen zaigun guztiak eragiten digu kanturako, ez nuke nahi gaizki aritzen baina aitzakia bat izatea. Bada jendea haurdunaldian edo erditze ostean memoriak ezberdin funtzionatzen diona edo kontzentratzea gehiago kostatzen zaiona, ez da nire kasua. Egia esan, gustura ari naiz bertso eskolan eta egin ditudan plazetan ez dut sentitu horrek burua beste norabait eraman didanik. Esperientziak eta esperientziak daude, erditzea erraza izan ez zen bezala, ostekoa nahiko erraz joan dela esango nuke, eta zentzu horretan niri ez dit suposatu ez fisikoki ez mentalki desgaste handi bat, beste kasu batzuetan suposatu dezakeena. Gustura ari naiz eta ez dit eragiten modu nabarmen batean, ez bada esperientzia metatutik.

Finalurrekoa koska handi samarrarekin irabazi zenuen.

Saioan bertan eroso eta gustura aritu nintzen, zentzu horretan lasai eta pozik noa finalera nahiko nukeelako gorputzaldi horrekin berriz topo egin. Emaitzarekin agian ez nago hain ohituta, nik puntu sail handia izan nuen eta gero tarte handia egon zen. Batzuetan tarte oso handiak iruditzen zaizkigu 50-60 puntukoak, ohituta gaudelako dena 10 puntu baino gutxiagoan jokatzen, eta harrigarrienak 10 puntuko aldeak dira, enpate praktikoak direlako. Bertsoz



bertso eta epailez epaile hasten bazara pentsatzen, 10 puntu ez dira ezer eta 50 ere ez dira horrenbeste, baina asko iruditzen zaigu. Hala ere, ez nuen horrelako alderik espero.

Buruz burukoa berriro dastatzeko gogoz?

Bai, noski. Inoiz probatu gabe nengoenean ere gogoa nuen buruz burukorako, nik uste dut hara goazen gehienok, ez bada denok buruz burukoan kantatzeko gogo handia izaten dugula. Nik jada probatuta dut eta gezurrik ez dut esango, berriro ere probatuko nuke, oso oroitzapen ona daukat eta horretarako motiboak ematen saiatuko naiz. Kontziente naiz, zaila izango da; orain arte ere kostatu zait sartzea, hortxe egon izan naiz urte batzuetan.

Zortzikoteari dagokionez, bost emakume eta erdal eremuko bi bertsolari.

Asko aipatu da bost emakumerena, uste dut lehenengo aldia dela historian emakume gehiago garena; gehituko nuke aurten gertatu dela baina nik sentsazioa dudala pasatu zitekeela lehenago ere. Poztekoa da behingoz gertatu izana. Finalean erdia baino gehiago garen bezala, finalurrekoetan

herena ginen, ematen du finalak dena konpontzen duela, baina finalurrekoetan zazpi emakume ginen eta bost pasa gara finalera, horrek zerbait esaten du. Bestalde, nik askotan aipatzen dut erdal gunee-tako bertsolarion kontua, hartzen badituzu finalak edo plazan dabilen jendea, nahiz eta zazpi probintzia aldarrikatzen ditugun, geografikoki asko murrizten da. Pozten naiz Oihana sartu delako, bereziki euskaldun eta arnagune ez diren lekuetako bi bertsolari gaudelako; hala ere, zortzitik bi ez da asko. Eta hor ere gauza bera, finalerdietan hiru geunden eta bi pasatu gara.

Zertarako gogoz zaude?

Gustatuko litzaidake lasai kantatzea eta lasai heltzea esateko modu ezberdin edo originalei. Kasu honetan bakarkakoak konkretuak izaten dira normalean, eta ez da egoten aukerarik norberak nahi duen gai bat plazaratzeko; hala ere, jardun nahi dut apur bat ‘terrenal’ baina ideologikotik kantatzen. Ez dadila izan estetika hutseko bertsoaldiak kantatzeko saio bat, batzuetan sentsazio hori izaten dut txapelketan. Gogoz nago gauzak esateko, ea aukerarik dudana.

XABAT GALLETEBEITIA ABAROA

Lekeitio, 1986. Zazpigarren Bizkaiko Txapelketa du eta bosgarren finala.

Lehen finalaurrekoan kantatu zenuen, duela hilabete pasa. Nolakoa izan da itxaronaldia?
Niretzat berezia eta inoiz bizi gabeko modu bat izan da aurten tokatutakoa. Lehenago inoiz abestu izan dut lehenengo finalerdian, baina askotan puntuen zain edo beste finalerdi batzuetako emaitzen zain geratu behar izan naiz, eta aurten, egia esan, txapelketan hasi eta lehenengo finalerdian irabazteak ematen dizun lasaitasun horrekin. Lasairi jarri ahal zaizkion kakotx guztiekin, baina tarte hau oso ongi etorri zait mentalki, baita finala prestatzeko ere.

Berrizeko agurrean, zure bizi-tzan aldaketa batzuk izan direla aipatu zenuen, tartean, gurasotasuna. Zer aldatu du?
Guztia aldatu du, uztailean izan ginen guraso eta aldatzen dizu bizitza kasik: lehentasunen ordenak aldatzen ditu, etxeko egunerokotasuna... Aldaketa bezala kokatzen nuen txapelketa bera ere hasieratik. Izena eman nuerako bagenekien ondo bidean guraso izanda eta lau bost hila-beteko umearekin egin beharko niola aurre txapelketari; nahi nuen aitatasunak eman didan leku berri horretatik ikusi txapelketan ea zer dudan esateko. Pertsonalki eman dudana aldaketa gehi etxean emandakoak bertsotan zer mugitzen zuen nigan, nire bertsokeran zer mugitzen zuen jakin nahi nuen.

Gaiei heltzeko posizio interesgarriak ikusi genituen Berri-zen.
Azkenean, horrelako gertakari bat pasatzen denean zure bizi-tzan, buelta asko ematen dizkio-

«Esperientzia modura, erronka pertsonal modura eta ikuskizun modura bizi nahi nuke»

zu buruari, eta zurrunbilo horretan aldatzen dira gure eskema mentalak eta gaiekiko dugun posizioa ere bai kontu askotan. Ez dut ezer bereziki prestatu, baina sumatzen dut inoiz baino argiago dudala zer esan nahi du-dan; gai edo gatazka batzuen aurrean sentitzen dut badudala zer esana eta iritzi bat izan nahi du-dala, eta ez bertsotara eramateko bakarrik. Gustatzen zait gaur egun mugitzen gaituzten gataz-ken eta bestelako kontuen ingu-ruan hausnartzea eta beste batzuekin partekatzea.

Ez omen duzu edozerekin konformatu nahi.
Txapelketa hau gogotsu hartu dut hasieratik, baina erlatibizatze-ko beharrezana izan dut, eta ez dut esango emaitzak ez dida-nik axola, baina agian bai inoiz-

ko gutxien. Horri kendu barik denbora asko eskaini diodala txapelketari, eta gogotsu nagoela. Baina nire lehentasunak aldatu dira, eta eragina du horrek txapelketan. Nire buruari baimendu nahi diot anbizio puntu bat txapelketarako. Izena emateak zama eta sakrifizio bat ze-karren, eta bueltatu nahi diot nire buruari eta ingurukoei.

Bosgarren finala duzu, zu oholtzan zaudenetik eman di-ra zenbait aldaketa finaletan.
Ni egon naizenetik finalik ez da errepikatu, nahiz eta urte batzuetan egon den nukleo bat errepikatu dena. Uste dut Eus-kal Herri mailan ari direla al-daketak gertatzen, eta Bizkaian are modu adierazgarriago ba-tean. Ni aldaketa horien tar-tean eroso sentitzen naiz, nahiz eta batzuetan deseroso egon aberasteko modura uler-tu izan dut, pribilegiatu senti-tzen naiz parte izateaz. Norbe-rarentzat ere aukera handia da hori bizitzea eta aldaketa ho-rien tartean ere norbera alda-tzea beste gauzekin batera.

Aurtengo zortzikotean herri-kide bat ere baduzu...
Ez dut esango aurreko finaleta-ko zortzikoteekin ez nengoenik gustura eta pozik, baina egia da aurtengoak bereziki pozten nauela. Lemoako finalerdia ber-tan bizi izan nuen, nahiz eta er-dia kanpoan entzungailuetatik jarraitu umearekin nintzelako. Saio osteko oroitzapen oso ona eramango dut txapelketatik, ka-sik nire saioarena baino gehiago hor bizi izan nuen momentua-rena: Aissa finalean sartuko zela jakin nuen momentuarena, eta zortzikotea osatu zenekoa. Ba-tzuk lagunak ditut, lagun han-diak hainbat, beste batzuk aur-tengo txapelketan gehiago ezagutzen ari naiz... Uste dut de-nek dugula elkarrekin ‘feeling’ ona. Kanpora begira uste dut ilusioa sortzen duela zortziko-teak, baina barrura begira ere uste dut badela pizgarri bat.

Zein aldarterekin iritsi nahiko zenuke oholtzara? Zertarako gogoz zaude?
Nahiko nuke Berrizera joan nin-tzen tenple eta konfiantza ho-rrekin joan Bilbora. Momentuz mantentzen dut orduko ener-gia, nahiz eta txapelketak faktu-ra pasatzen duen eta amaitzeko gogoa ere badaukadan. Nahiko nuke konfiantza eta tenple ho-rrekin joan. Jakinda asko espero dela zortzikote horretatik, jakin-da agian ez dugula eskainiko jendeak espero duen saio boro-bila; baina horretarako ere pre-satatuta nago, azkenean, final bat da, lehiatzera ere bagoaz.
Finala esperientzia modura bizi nahiko nuke, erronka per-tsonal modura, eta ikuskizun modura. Hiru dimentsio horie-tan, uste dut horretarako aukera ematen duela zortzikoteak zein arratsaldeak berak, eta nahiko nuke aipatutako hiru dimentsio horietan bizitzea.



NEREA IBARZABAL SALEGI

«Bertso oro egon nahi dut bertso horiek kantatzen dituen gorputzean sartuta»

Markina-Xemein, 1994. Seigarren Bizkaiko Txapelketa, laugarren finala eta txapel bat.

Orain arteko txapelduna zara, finalera sartzeak arindu dizu zama?

Bai, lehen finalera sartzea opari bat zen eta orain nire buruari jartzen nion bete-behar bat zen kasik. Eta bide horretatik finalaurrekoak bihurtu dira ez horrenbeste gozatzeko eta bai sufritzeko esparru. Behin helburu hori beteta nik uste dut finala exigentea eta luzea dela, baina langa bat pasatzera baino zerbait ematera joateko aukera gehiago ditudala, ni behintzat libreago sentitzen naiz.

Finalaurrekoan ganbarako borobila egin zenuen, zure ariketa gustukoena da?

Uste dut baietz, uste dut hobeto kontzentratzen naizela barkarkako ariketetan, erabaki denak zure gain daudelako; ni libreago sentitzen naiz, eta sentitzen dut inor ez dudala kaltetzen bide horretan, eta beharbada hor aitortzen diot neure buruari askatasun gehiago ofizioetan baino; ofizioa elkarriketa bat da, eta erabakiak elkarrekin inprobisatzea oso zaila da beti. Lemoako kasuan gainera, gaia entzun eta berehala bide hori okurritzen zitzaidan maiusku-lekin, beharbada gertutik eta pertsonalki ere pasatu dudalako antzerako prozesu bat, uste

dut emakume askok janariarekin harreman gatazkatsu hori badugula.

Zazpitik bostek kantatu zenieten elikadurarekin izandako harreman gatazkatsuei.

Hori ere ederra izan zen, Ibaik ere antsietatez jatearen bidea hartzea, ez zedin genero marka bat besterik izan. Uste dut emozio asko kudeatzen ditugula elikaduraren bitartez bakoitzak ahal duen moduan, eta argazki esanguratsu bat izan zen.

Poz kolektibo bat gailendu zen ondoren.

Momentu oso zoro eta oso eder bezala gogoratzen dut, argazki bat betiko iltzatuta gertuko dena, ekipo horren argazki hori. Ordura arte negarrari eusten egon nintzen eta Aissa esan zutenean jada ezin nion emozioari eutsi, Josunerekin ere berdina sentituko nukeen. Ze ondo hain saio ona egin dugula eta eztaba daezina dela emaitza hau.

Aldatu da finaleko argazkia.

Bizkai barruko lurraldetasunean, generoan.. prisma horiei beti begiratzen diegu eta nik sentsazioa dut lan asko egin dela gai hauetako bakoitza sendotzeko, eta azkenean, zorionez, islatu egiten direla horrelako emaitzak. Argazki hau guganaino iritsi da aurretik beste batzuek, eta tartean Onintzak berak, bere belaunaldiak eta aurrekoek, askoz horma gogorragoen kontra tope



egin izanagatik, baina hor eutsi izanagatik halere. Horregatik heldu gara gu honaino.

Zoragarria da argazki hau, eta aurrerantzean ere aldatzen jarraituko du beste zentzu batzuetan, eta agian ez ditugu alaketak aipatu behar izango. Baina nik uste dut beti aipatu beharko ditugula, beti faltako direlako gorputzak, diskurtsoak... euskalgintzari falta zaizkion eta irabazi behar dituen lur horiek denak irabazi behar dituelako bertsolaritzak ere.

Bertsozalea gogotsu dago?

Nik hala pertzibitzen dut. Urtero sentitzen dugu, nik uste dut bertsozaleak beti erantzuten diola ondo txapelketari, eta ni pertsonalki horrek lotzen nau txapelketara. Txapelketa bestela maila pertsonalean oso exigentea da buruz eta osasunez, eta nolabait konpromisoa da bertsozaleari urtean behin espektakulu masibo eta eder bat eskaintzearena, eta poz horren parte izatearen gogoak lotzen nau ni behintzat. Urtero sartzen diren izen berriek ekar-

tzen dute beren publikoa, ekartzen dituzte bere diskurtsoa, giroa eta gaiak hartzeko modua; beti da berria eta beti da harrigarria. Gero plazaz plaza ere bada, baina txapelketa beti da argazkirik handiena eta hor sortzen diren emozioak ere biderkatuta sentitzen dira.

Larunbaterako helbururik?

Gogoz nahiko nuke hor egon, bertso oro egon nahi dut bertso horiek kantatzen dituen gorputzean sartuta. Uste dut azken urteetan ikasi dudala kantatzen pilotu automatikorekin batzuetan, eta hor ez duzu bertsoa berdin sentitzen eta ez da berdin iritsarazten, urduritasunarekin batzuetan oso erraza da pilotu automatikoa jartzea eta ez konektatzea bihotzez eta tripaz esaten ari zarenarekin. Nahiko nuke une oro hor egon, eta ahalko balitz berriro buruz burukoa jokatu, hori ere oso pozik egingo genuke. Eta ez nuke nahi ahal dela errazkerietan ibili, nahiz eta batzuetan ez dagoen beste erremediorik.

Muxikan sortu zen, 1979an. Lehenengoz 2006an probatu zuen Bizkaiko finala eta hurrezkeroko guztietara sailkatu da. 2018ko txapeladuna da.

Nola zaude? Zer etortzen zaizu finalari begiratzean?

Oso pozik nago lehenengoz bost andre kantatuko dugarako finalean. Bestalde, ikusten dut final bat oso lagunartekoa, elkarrekin asko kantatu izan dugun jendea elkartuko gara eta horrek ere ilusioa egiten dit.

Lemoako finalaurrekoko argazkiak ederki islatzen du laguntasun hori: guztiok besarkatuta ageri zarete.

Halako detaile txikiak ikusten da gauzak beste modu batera egin ahal direla. Kontziente naiz lehia bat dagoela; nahiz eta asko maite duzun jendea egon, irabazi nahi duzu, edo ahalik eta postu onena lortu, humanoa, saihetsezina da hori, baina ez da berdina sentsazioa edukitzea ez nautela gehiago zapalduko edo gozoagoak izatea gauza batzuk. Lehian egoteko modua aldatzen doa, gorputzak aldatzen doaz. Edozein izanda ere aurrera egiten duena, poza sentitzen da eta poz hori transmititzen da.

Aurrera egin dutenetako bat, Aissa Intxausti, ikasle izan zenuen.

Bai, Lekeitioko eskolan. Berak barre egiten du, baina asko gogoratzen naiz berekin eta bere klasekideekin, nire lehen aldia izan zelako eta oso ume naturalak zirelako. Gogoratzen naiz Aissak kristoren gogoazuela bertsoarako. Ez zuen inor eta eguerdietan arinago



ONINTZA ENBEITA MAGUREGI

«Orain disfrutatzen dudan moduan ez nuen disfrutatzen 30 urterekin»

joaten nintzen berarekin entrenamendu txikiak egiteko. Oraindik gordeta dut oparitu zidan bonboi kaxa. Ilusioa sentitzen dut Aissarekin. Josune [Aramendi, Lemoan kantatu zuen] ere hazten ikusi dut, eta azken agurrean aipatzean hunkitu egiten naiz. Ez dakit zenbat urtez egon gara eusten, eta atzetik etorri dira beste neska batzuk. Bertso sistema ez da erabat garbia, matxis-moa bada, eta saiatu naiz egia transmititzen, gauza politikak eta ez hain politikak.

Hasierako agurrean umorez kantatu zenuen zure belau-naldiak txapelketa utzia duela eta zure buruari galdetuz

ea zertan ari zaren hemen. Baduzu erantzunik?

Ez. Gogoaz ere egongo da, ez diot nire buruari muga handirik jartzen. Orain ikusten dut ze final gelditu den, eta hau agertokitik bizi izateko geratu behar nuela diot, arrazoi horrek balio dit momentuz.

Txapelketaren zer balantze egiten duzu oro har? Eta zure lanarena?

Orokorrean esango nuke kristoren maila dagoela eta ziklo aldaketa bat dagoela. Aurpegi berriak daude, asko egon gara urte askoan hor, eta jende gaztea doa sartzen. Aissa finalera sartzea ez da kasualitatea.

Pertsonalki, irailean edo urrian ez zen nire momentu onena, tibia eta peronea apurtu nituen; ezkerreko hankarekin hasi nuen udazkena, baina gero sartzen joan naiz, ilusioa hartzen. Errehabilitazioa amaitu dut eta nahiko ondo noa. Halere, oraindik edukitzen dut mina asko ibiltzen banaiz.

Lemoan saio ona egin nuen. Korapilo handi bat egin zitzaidan pasatutako uda amaiera eta udazkenagatik. Emozionalki gauza asko dakartza sei aste gurgildun aulkian egoteak, muga guztiak onartzeak. Lehen ariketan, zortziko handian, korapilo hori sentitu nuen, baina lasaitu nintzen eta gero nire burua ondo aurkitu nuen, gustura bertsoan. Penatxoa geratu zitzaidan bakarkakoa ez nuelako biribildu nahiko nukeen moduan eta kostatu zitzaidalako ekartzea. Baina pozik, nire buruarekin oso gustura irten nintzen.

Ganbaran hunkitu eta biluztu zinen. Ze zintzo!

Nerea Ibarzabalek esan zuen bezala, zenbat anorexia eta gu-

re buruaren kontrako borroka dauden! ‘Sinzerizidio’ edo biluzte ariketa orokor bat egin genuen bakarkakoan, hor ikusten da gure borrokak zeintzuk izan diren sistema zikin honetan eta horrek zenbat zaildu duen publikoarekin eduki dugun harremana, plazan egon behar horrekin, guk onartzen ez dugun gorputz batean jendearen aurrean egon beharrarekin. Emakumea zara, espazio publikoan zaude, eta gizarteak behin eta berriro esaten dizu ez dela egon beharko zenukeen lekua; isilik, etxean egon beharko zenukeela. Denak dauka oinarri bat, eta bitartean, sufritzen egoten gara.

Zein asmo dituzu Miribillan?

Miribillan, denon moduan, ederrena nahi dut denontzat, eta niretzat, irabaztea. Kontziente naiz ze maila dagoen eta han egotea jada ederra izango da zirkunstantzia askogatik, zortzigarren eginda ere.

Zein eragin izan du zugar 2018ko txapeladun izateak?

Txapeladun izatea beti da ederra, solemnitatea ematen dizu, autoritatea esaten dituzun gauzak ez hartzeko desoreka pertsonaltzat, eta jendaurrean segitzen duzu berdina izaten. Lasaitasuna ere eman zidan. Irabaziko du beste batek, baina behin behintzat irabazi nuen, horra heldu izanaren poz hori daukat.

Zer harreman duzu gaur egun bertsoarekin?

Plazan inoizko ondoen eta gusturen nabil. Orain disfrutatzen dudan moduan ez nuen disfrutatzen 30 urterekin. Autoexijentzia utzi eta leku baikoitzean dagoenarekin gozatzeko ikasten ari gara.

AISSA INTXAUSTI ABURRUZA

Lekeitio, 1996. 2016an parte hartu zuen lehenbizikoz txapelketan. Aurten, finala probatuko du.

Finalista «sorpresa» izan zara. Zu ere harrituta?

Santurtziko puntuazioak ikustean, aukera txiki bat ikusi nuen. Barruan nintzela jakitean, “ai ama!” izan zen lehenengo erreakzioa. Ikara, poza, publikoa bero-bero, nire inguruko denak negarrez, ni baino emozionatuago.

Nola joan zen finalaurrekoa?

Orokorrean saioarekin pozik geratu nintzen, bereziki zortziko txikiagaz eta hamarreko txikiagaz. Ondoan Josune Aramendi betitik bertso eskolako kide izandakoa nuen, elkarrekin ibili gara entrenatzen. Beste kideak ere oso lagunak tokatu ziren. Kartel ideala zen pertsonalki, eta gainez ez egitea nuen erronka. Sarrerak agortuta zeuden eta ikaraz joan nintzen, kontzentratuta kantatzeko asmoz. Puntuak entzun aurretik, Josuneri esan nion: «Saioan egon naiz eta disfrutatu dut, pozik nago».

Josune Aramendi, Onintza Enbeita, Nerea Ibarzabal, Ibai Amillategi, Oihana Bartra eta zu, etxekoak, batera entrenatzen ibiliak tokatu zineten.

Agur kolektiboa ere planteatu genuen [barrez]. Lagunartean baina txapelketan gaude, esaten nion nire buruari. Nahikoa mentalizatu nintzen, bertsoz bertso nirea egiten saiatuz. Banekien babestuko nindutela, kide oso onak dira eta horrek laguntzen du saio ona egiten eta kontzentratzen.

Zure estiloa erakutsi zenuen. Hizketan sartzen diren ele-

«Jendea asko poztu da nigmatik, eta horrek emozionatzen nau»

mentuak sartu zenituen: «Dena OK, ojo...».

Zalantza egin nuen, baina “sartu egingo dut” erabaki nuen; gazteon hizkera aldatzen doan heinean, bertsokera ere bai.

Azaroaren 25a zen, bost emakume lehenengoz finalaurreko batean. Finalean ere bost izango zarete.

Horren parte izateak ilusioa egiten dit. Onintza oso emozionatuta dago horregaz. Bederatzi final daramatza eta negar batean ikusten nuen. Bera entzuten, momentuan konturatu nintzen horren garran-

tziatz. 10 urte neuzkala nire irakaslea izan zen eta Miribillako oholtza beragaz konpartitzea oso polita izango da. Jendea pozik ikusteaz ere hunkitzen naiz. Mezu pila bat jaso ditut. Jendea asko poztu da nigmatik, eta horrek emozionatzen nau.

Zer iruditu zaizu txapelketa?

Polita orokorrean, eta gaiak bereziki onak. Gai-jartzaile taldeak kristoren lana egiten du, asko zaindaz. Oso lan gaitza da eta oso eskertuta nago eurrei. Sarrera salmenta ere oso ondo joan da eta publikoa oso esker onekoa izan da. Ia saio denak ikusten joan naiz eta gozatzen ari naiz urduritasun puntu horretaz. Kideekin batzen gara, hainbat bertso eskolarekin. Afariak eta ‘kedadak’ egiten ditugu, bestela egingo ez genituzkeenak.

Zein helburu dituzu finalari begira?

Finalak ez egitea gainez, “ai ama 4.000 pertsona!”. Agian behin izango da bizitzan, eta behintzat disfrutatu ahal izatea desio dut. Nahi dudana kantatu ahal dut, jende pila izango dugu entzuten eta animatzen. Bertan, oholtzan egotea, hori nahi dut. Kristoren erantzukizuna da hainbeste jenderen aurrean mikroan jartzeta. Gogoia dut disfrutatzeko, nahiko nuke ez egotea pasatuta. Lehen finaletan deskolokatura ikusi ditut kide batzuk, urduri egon naiz lagunengatik, eta ez nuke nahi hori pasatzea. Lehen txapelketan baino askoz lasaiago ari naiz eramaten; konfiantza puntua irabazi dut eta hori izan da klabea. Orain arte ez diot nire buruari

ipini helburu bat, inoiz ez dut eduki lehiakortasun puntu hau, gai izango nintzenik ere ez dut sinetsi, baina aurten ariketa hori egin dut: «Aissa, harrotu, la puta ama zara», nire buruari sinetsarazi diot ahal dudala. Ahal dudana baino helburu handiagoa ipini dut. Orain arte beti ikaraz joan naiz: «Ea ez dudan erridikulurik egiten». Aurten nahiago dut ondo egin.

Bertsolariak gainbaloratuta daudela idatzi duzu «Bertsolari» aldizkarian.

Neska, txikia, ilehoria, aurreiritziz pixka bat tuntuat hartua izan nintekeen, baina mikro bat eta oholtza bat jarri eta jendeak jakintza bat aitor-tzen digu. Ez du zertan; denak ez gara Amets eta Maialen. Bakarkakoetan espero da txapelketan diskurtsiboki maila bat, eta nik ironikoki idatzi nuen ‘Bertsolari’-n: trankil, ez dugu jakin behar dena egiten.

Onintzak kontatu dit bertso tarako grina berezia sumatzen zizula txikit.

Umetan ondokoari bertsoak egiten nizekion. DBHn Markinara joan nintzen, Nerea, Josune eta Xabat [Gallettebeitia] ezagutu nituen, eta motibatuta ibili nintzen. Gero egia da unibertsitatera arte ez duela izan presentzia handirik bertsoak nire bizitzan. Unibertsitate garaian bertsoagaz lotutako beste mundu bat, askoz informalagoa, ezagutu nuen, bertso poteoak, ostegunak, militantziagaz lotuta, eta txapelketak sarrarazi ninduen bertsolaritzara 2016an. Bertsozale Elkartean hasi nintzen ordezkapenak egiten. Bertso irakasle ere aritu naiz, eta orain elkarteko zuzendaritzan nago. Batzuetan ‘frikitzen’ naiz. Faseka doa, baina beti dago hor.





GORKA PAGONABARRA AGORRIA

«Promesaren etiketa izan dut, baina plazara zoaz eta ez zaude hain fuerte»

Durango, 2000. Finalista gazteena da, baina badu esperientzia, hala izan zen 2021ean ere. 2018an ere parte hartu zuen Bizkaiko txapelketan eta 2022an, Euskal Herrikoan ere bai.

Pozik dago Miribillan kantatzeko «aukera eder hau» due-lako, bigarren ez gainera. «Egun oso intentsoak dira», sentimendu asko ditu barrenean bueltak: poza, urduritasuna, beldurra... «Hor daude, baina denak bere lekuan, neurtuta momentuz».

Helburu berezirik jarri diozue buruari finalerako?

Duela bi urte handitxo gelditu zitzaidan finala, nire burua kanpoan ikusten nuen. Aurten konfiantza gehiagotz nago, eta gustatuko litzaidake ber-

tan sentitzea eta ariketaren batean niretik uztea; iritzi aldetik, dena delakotik.

Hasierako agurrean aipatu zenuen joan den txapelketan finalean sartzeak ez zenekielan on egin ote zizun. Gaztea izanik ondorenera garatutako segurtasun faltak, plazan ere demostratu beharrak... Zer eragin izan du zugan?

Sorpresaz sartu nintzen, poza ikaragarria izan zen, baina gehiegizko garrantzia eman nion. Gero kostatu zait berriro nire burua topatzea eta kokatzea, onartzea finalera pasatu arren bertso txar pila kantatu behar ditudala oraindik. Adibidez, Euskal Herriko txapelketara pasatu ginenean, hor nahiko bolada txarra izan nuen, 2022ko udazkenean hirulau saio kateatu zitzaizki-

dan zeinetan ezin nuen bertso bat ondo josi, tartean izan zen Euskal Herriko saioa, eta nahikoa sufritu nuen. Kostatu zitzaidan final oste hori, eta hein horretan bigarren ez finalen egotea bada nire autoestimarentzat opari txiki bat.

Gazteenaren titulua ere badaramazu. Zer ekartzen dizu?

Promesaren etiketa hori izan dut, fuerte datorren gazte horrena, baina gero plazara zoaz eta derrepente ez zara hain ona. Kostatu zait hori ulertzea eta kudeatzea. Bertsoan ondo egin nahi duenak lan asko egin behar du. Balio izan dit ikasteko eta beste heldutasun batezaz ailegatzeko.

Lehen saioan kantatu zenuen, Berrizen, eta txukun aritu zinen.

Finalerako nire helburua, bertan egon eta niretik zerbait uztearena, Berrizen lortu nuela esango nuke. Beldur eta zantza puntu batekin nintzen, inoiz ez da jakiten nola joango den, baina egun hartan nire alde erabili nituen nerbioak. Orokorrean, ofizioetan, hanka sartze batzuk eginda ere, daki-danaren zati handi bat erakutsi nuen. Ez nuen aparteko kolperik eman, baina bertsoz bertso nahiko saio politak osatu nituen.

Nola prestatu zara?

Betikoa da, inork ez daki zehazki zer egin behar den txapelketa prestatzeko [dio irriz]. Bertso eskolak egin, jendaurrean egin beharreko ariketak behin eta berriz entseatu, akatsak atera eta horiei begira berriro egin... Nire kontura ere saiatzen naiz irakurtzen eta buruan bertsoa presente edukitzen etengabeko bilaketa horretan.

Zein harreman duzu bertsoekin? Zer moduz zabilte plaza aldetik?

Garaiazen arabera ilusio gehiago edo gutxiagotz, baina orokorrean ilusio eta poz handiagotz ibiltzen naiz plazarako aukera dagoenetan. Oso karu dago plazarako sarbidea, bertsolari on asko dago eta oso gaitza da lekutxo bat egitea. Hortaz, poz handia sentitzen dut plazak agertzen direnean, baina bestetik, arriskua izaten da saio gutxiko garai batzuk eduki eta desengatxatu eta desmotibatzekoa. Hala ere, ez dut bertsoa uzteko burutaziorik izan.

Nola ikusi duzu txapelketa oro har?

Txapelketa guztietan pasatzen den bezala, ez dago pozik denentzat, zortzi leku daude eta bidean geratzen dira pena batzuk. Final laurdenetan jendea orokorrean oso urduri ikusi nuen, berea ematetik urrun samar. Hor pena batzuk hartu nituen eta nire buruari esan nion “ea finalaurrekoetan horri buelta ematen diogun”. Hor gehiago eman genuen guretik. Pertsonalki, justu bederatzigarren eta hamargarren geratu dira Aitor Bizkarra eta Txaber Altube lagunak. Intentsoa izan da ospakizuna, jakin dugu batzuen penak sendatzen eta besteen pozak ospatzen. Ezin bestekoa da taldea bertsoetarako, lagunak pozekin poztea.

Zortzikotearen argazki berria da. Aissak sorpresa eman du, Aitor [Etxeberriazarraga] eta biok aurrekoan eman genuen bezala, eta aurten konfirmatu. Bertsolari diferenteak gaude eta ederra izango da baikoitzak bere tonu berezia atera ahal izatea. Ez dut gehiago esateko; esateko dudana saiatuko naiz errimatuta esaten.

AITOR ETXEBERRIAZARRAGA GABIOLA

«Nire ilusio handiena da paper on bat egitea plazetan jarraitu ahal izateko»

Gernika-Lumo, 1993. 2018an parte hartu zuen lehenengoz txapelketan eta 2021ean finalista izan zen. 2022an Txapelketa Nagusian kantatu zuen. Hirugarren egin zuen Berrizen eta kolokan egon zitekeen. Baina erregular ibili zen eta eustea lortu zuen.

Lehendabiziko finalaurrekoa kantatuta, urruti samar ikusten zuen finala, baina egunez egun martxa hartzen eta mentalizatzen joan da.

«Bat-batekotik asko dauka bertsoak, eta horretaz aparte txapelketak psikologiatik eta emozioetatik asko dauka. Niri loan eta gosean ez dit eragiten. Normalean urduritasunak tripan nabaritzen ditut eguna gerturatu ahala. Oraingoz ondo nago, gorputzaldi onarekin, atsedean hartuta eta gogotsu», adierazi digu.

Nola joan zen Berrizen kantatu zenuen finalaurrekoa?

Saioa etortzea kostatu zitzaidan, ez nagoelako ohituta finalerdietako tentsio batekin hasten txapelketa. Hau hirugarren txapelketa dut, eta nire bizitzako lehenengoetako saioa zen. Oraingoan, lekua topatze horretan zortziko handian urduri hasi nintzen, baina hortik aurrera gustura.

Zortziko txikian gustura ikusi zintugun Abarkasekin.

Osoen edo biribilen hori irten zitzaidan. Beste ariketekin ere nahiko gustura geratu nintzen. Momentu batzuetan sentsazioa izan nuen gaian kokatzerakoan korrontearen kontra nenbilela. Batzuetan dena alde tokatzen da; besteetan, igeri

joan behar izaten da bila. Hori da txapelketa.

Ganbarako lanarekin konforme gelditu zinen?

Bai. Ez zen bereziki landua neukan gai bat, nik aukeratua, baina gaia entzunda ezin katu nenbilen, ez nuen topatzen helduleku solido bat sakon eta dentso kantatzeko. Orduan, boteprontoan, denbora aurrera zihoala ikusita, Olentzeroren gorabeheretan sartu nintzen. Joskerarekin, bertsoaren etorriarekin gustura geratu nintzen, baina heldulekua bera ez dakit errepikatuko nukeen.

Nola prestatu zara? Zertan egin duzu ahalegina?

Hiru urtean hiru txapelketa jokatuta ditut lehenengo bider, eta aurrekoaren neketik guztiz la-

saitu barik harrapatu nau honek. Lehiatzen ibili behar horretan ilusioa topatzea pixka bat kostatu zait. Ez zen hainbeste entrenamenduaren nekea, baizik eta berriro lehiara atera behar izateko neke bat. Saiatu naiz doinu desberdin batzuekin, bakarka ere neurri motza aukeratu nuen, desafio txiki batzuk jartzen nire buruari.

Nola bizi duzu lehia?

Ez dut kontsideratzen bereziki txapelketa zalea den pertsona naizenik, baina ulertzen dut bide zuzena dela plazetan egotea. Bereziki aurreko Bizkaiko finaletik, eta Euskal Herriko txapelketan egindako lanarekin ere nahiko konforme gertatuta, nire bertso agenda handitu egin da, oso-oso gustura nabil, gozatu dut. Nire ilusio handiena da paper on bat egi-

tea, behintzat beste hainbeste plazetan jarraitu ahal izateko. Agian bi urte barru ezberdin ikusiko dut txapelketa bera. Baina orain helduleku handiena edo solidoena da badela plazara heltzeko modu bat.

Zer diozu txapelketaren ibilbideaz eta finalaz?

Finalerdietan hartu du txapelketak eskatzen zen beroaldia, eta final guztiz polita gelditu zaigu. Zortzikotetik bost dezente batzen gara bertsoetarako, kasualitatez edo ez, Armaion ibili gara elkartzen. Gorkarekin [Pagonabarra] ere badaukat 'feeling' berezi bat, lehenengoz elkarrekin sartu ginen eta bigarrenaz elkarrekin gatoz. Zortzikote oso-oso polita ikusten dut, sentitzen dut jendearen eta bertsozaleen partetik oso gustura jaso dutela, poztasunez. Ardura hori gure gain hartu, eta ea benetan ez den kartealeko final polita bakarrik.

Zein helbururekin joango zara zu?

Ez dut helburu berezirik markatu, nahiko nuke behintzat igarri dadila ez dela lehenengoz nagoen plaza bat, badakidala non nagoen. Entrenamenduetan eta plazetan sentitzen naizen bezala sentitu nahiko nuke bertsoetan.

Zer oroitzapen duzu aurreko finalaz?

Ez nuen bereziki sufritu, baina pandemiako finala zen, hotzagoa, musukoarekin. Protokolarioagoa izan zen eta ez nuen bereziki jai baten sentsazioa bizi. Horren guztiaren barruan, nahiko gustura kantatu nuen. Sentsazio horretatik eta pandemiako final bat ez den horretan zerbait biribilagoa lortu nahiko nuke orain.





Gorka ETXEBARRIA DUEÑAS
Historialaria

Hezkuntza eraginkorra

EAEko hezkuntza sistemari buruzko eztabaida bukatu zen, egun jaurlaritza osatzen duten alderdiek ez ikusiarena egitea erabaki zutenean. Egungo egoera linguistikoak orain berrogei urtekoarekin batere zerikusirik ez duela? Berdin dio, funtzionatzen ez duen zatiketa linguistikoarekin jarraituko dugu. Euskadi Aurrera (edo dena delakoa, egun Jaurlaritzak erabiltzen duen lema absurdoa).

Eredu linguistikoak gorabehera, eztabaida mikaztu zuena kontzertuen hedapen izugarria izan zen, une honetan jada EAEn ikasleen gutxiengoa baitago sare publikoan ikasten. Ondo adierazi zuen Urkulluk zein den bere lehentasuna, langile publikoek kalitatezko lana zerbitzu onen bermea dela aldarrikatu zutenean (eta berriro joko dute grebara datorren asteartean). Lehendakariaren arabera, utopikoa da pentsatzea gobernuaren aurrekontua zerbitzu publikoei begira eraikitzea, bera enpresen lehendakaria ere bada eta. Definitiboki, nik ez dut ulertzen liberalismo hori, zeinetan zerga sistemaren helburua sektore pribatua puztea den. Adam Smith gajoa begiak zabal-zabal egongo litzake Urkulluri begira (egungo neoliberaliei, oro har, harrituta begiratuko zien, filosofo eskoziarraren pentsamenduan enpatia, elkartasunak eta gutxi batzuek aberastasuna piltzeari mugak jartzeak leku garrantzitsua baitzuten).

Hezkuntza legeari buruzko eztabaidan euskaltzaleon artean berriro arrakalak ireki diren bitartean, itzalean egon da benetako onuraduna, Kristau Eskola. Baina zoritxarrez eztabaidan sartu ez dena gure hezkuntza-ren eraginkortasuna da. Edo, hobe esan, eraginkortasunik eza. Kanpo azterketen arabera, inoizko gaitasun gutxien dute gure

ikasleek. Irakurtzen dutena gero eta gutxiago ulertzen dute eta matematiketan gero eta zailtasun handiagoak dituzte problemak ebazteko. Egia esan, bi faktore horiek erabat lotuta daude, problema ebaztea oso zaila baita enuntziatua ulertzen ez badute. Halaber, EAEn inon baino handiagoa da familia migranteen seme-alaben eta gainontzeko ikasleen arteko arrakala.

Esan dezakegu PISA azterketa antolatzen duena OCDE erakunde neoliberalak dela, baina hori gorabehera, azterketa horietan gero eta emaitza okerragoak eskuratzeak alarmak piztu beharko lituzke. Jada Eusko Legebiltzarrerako kanpaina abiatu den honetan, nolabait heldu beharko zaio gaiari. Orain gutxi arte Finlandia aipatzen zen, baina bertako hezkuntza sistemaren azterketa seriorik egin gabe eta konturatu gabe hango emaitzak ere gero eta kaskarragoak direla.

Iraultza pedagogikoaren beharra aipatu du EH Bilduko lehendakariak. Baina une honetan kopiatzen ari garen iraultza pedagogikoa, Eskozian martxan jarri zutena 2010ean Curriculum for Excellence delakoarekin, bertan behera utzi dute. Hamahiru urtez praktikan jarri dituzten pedagogia berri delakoen emaitzak katastrofikoak izan baitira. Asmo onek gidatutako irakasleek moralinaz bete ditzakete hezkuntza fakultateak eta klaustroak. Baina gelan behar dena gure ikasleek irakurtzen dutena ulertzea da. Jai dago bestela, nahiz eta sarean inoiz baino informazio gehiago egon eskuragarri, ez baitira gai izango informazio hori ulertzeko. Iraultza beharrean, proposamen xumeak behar dira eskolan, egunerokotasunean aplikatzeko. Zein praktika dira eraginkorrak eta zeintzuk ez. Lehentasuna eraginkortasunean jartzea berehalako eginbeharra da, eta ez da horren zaila. •



Iraultza beharrean, proposamen xumeak behar dira eskolan. GETTY IMAGES

{ koaderno } Erika LAGOMA POMBAR

Jaio. Plateruena. Hil

Durangoko Azokaren betekadak hutsu-neak ere uzten ditu agerian, bat nabarmena, Plateruena. Ahotseneak makilatzen dio aurpegia eraikinari, betetzen du mukuru, baina Plateruena ezagutu duenak presente du hutsa.

2004ko urriaren 28an ireki zituen ateak 900 bazkideko kooperatiba bati esker, herritik sortua Durangorentzat, Durangon Euskal Herriarentzat. Euskaraz, konplexurik gabe. Durangoko Plateruena eraikitze eta azpiegiturak mantentzeko, 1.405.000 euro behar izan ziren, %87 autofinantzatua, %13 dirulaguntzetatik. Guztira 2.139 bertso-saio, kontzertu, aurkezpen, eztabaida, antzezkiak. 2020ko abenduaren 31n zarratu zituen ate ber horiek. Irribarretsu ageri gara argazkian, harro parte izanagatik, baina begirada triste batekin. Ez dago hesi lasterketa infinitu bat korritu dezakeenik.

“Plateruena eta gero zer” plataforma sortu zuten gizarte mugimenduetan eta kultur ibilitako, zebiltzan, Durangoko hainbat gaztek. Parte hartze prozesua abiatu zuten. Udalak ere bai, geroxeago, Emun enpresak gidatutako prozesu herritarra. Baten faltan, bi. Ondorioetan eredu ezberdinak aurkeztu bazituzten ere, zutabeak komunak ziren: eredu publiko-komunitarioa, Plateruena erakusleho eta sorkuntzarako espazio, herriko kulturgile eta artistez osatutako Kultur mahaia gidari.

Hauteskundeak ate joka zirela berpiztu zen Plateruena, 2023ko martxoaren 3an. Kultur aterpe bihurtuta. Ostalaritza zerbitzurik gabea, lizentziaren kudeaketa martxan, baina gauzatu gabe. Proiektua guztiz definitzeki; berau garatuko zuen Kultur mahaia osatuta, aldiz. Kudeaketa publiko-komunitarioa, 316.550 euroko aurrekontuarekin.

PPk sostengatuta udal gobernua osatu dute EAj eta PSEk. Plateruena afera zintzilik ikusi dugu askok, galdetu diogu elkarri zer gertatuko den, ikusteko da-

go. Amaia Ereñagak bildu ditu Naizen Durangoko kultur zinegotzi Jon Sergio Atxotegiren hitzak: «Durangoko Udalak bere aginte programan zehaztutako proiektu estrategikoen artean dago Durango euskal kulturaren egoitza bihurtzea... Une honetan elementu guztien hausnarketa egiten ari gara, Durangok merezi duen proiektu aproposena garatzeko, eta argi daukagu proiektu honetan Plateruenak paper garrantzitsua izango duela. Kultur Mahaia ere zeresana eta zeregin izango du. Denbora apur bat behar dugu behar bezalako proiektua garatzeko. Ziur gaude azken emaitzak mereziko duela».

Udal gobernua bidean zegoen ostalaritzako lizentziaren prozesua eten du, eta berau berrikusten ari da. 2024an zehar, enpresa baten bidez, Plateruena planteamendu egokiena zein den aztertuko du. Aurreko bien faltan, hiru. Abenduan burutuko da programatutako azken emanaldia, urtariletik aurrera ez da

Eredu publiko komunitarioari eutsiko al zaio? Euskarak ardatz izaten jarraituko al du? Denboraren joan geldoak higatuko al du Kultur Mahaia? Sorkuntzarako gune ere bai, ala erakusleho huts? Izango al da?

aurreikusten Plateruena zabaltzerik, ez bada udalarentzat garrantzitsuak diren ekitaldi txikiak gauzatze-ko. 2024ko aurrekontuan murrizketa esanguratsuak datoz, eraikinaren mantenuari eta parte hartze prozesu berriari lotuta. Ez da aktibitate aurreikusten. Aurreko guztia hala omen.

Eredu publiko komunitarioari eutsiko al zaio? Euskarak ardatz izaten jarraituko al du? Denboraren joan geldoak higatuko al du Kultur Mahaia? Sorkuntzarako gune ere bai, ala erakusleho huts? Izango al da?...

Jaiotzen den oro eraldatu egiten omen da, edo bere horretan hil. Badabil haizean herio usainik. Erratu nadin. •

«Nerabezaroa berez krisi garaia da eta orain, pantailekin, krisi hori areagotu egin da»

Haurrek eta nerabeek pantailekin duten harremanak kezka handia sortzen du. Erabilera goiztiarrak eta okerrak zer-nolako ondorioak dituen ikusten ari gara, osasun mentalak okerre egin du eta gurasoak eta hezitzaileak kezkatuta daude. Testuinguru horretan osatu dute Telmo Lazkanok eta Maitane Ormazabalek “Nerabeen garrasia. Osasun mentala aldaketa garaian” liburua.

Nerabeen garrasia aipatu duzue liburuan. Zer ari dira oihukatzen eta jendarteak entzuten ote ditu?

[Maitane Ormazabal]: Gaur egungo nerabeek denbora daramate garrasika. Eskerrak orain mugimendu bat sortu den eta pantailek eragiten duten eraginari begira hasi garen. Izan ere, sufrimendua urteetan zehar egon da eta orain gorakada nabari bat gertatu da. Antsietatea eta depresioa bezalako hitzak askotan entzuten ditugu eta ‘antsietatea’ hitzaren azpian dagoena sufrimendua da. Zein erraz esaten dugun “gure gaur egungo gazteek antsietatea dute” eta, al-diz, zein zaila egiten zaigun esatea “gure gaur egungo gazteak sufritzen ari dira”. Sufrimendua hitzak beste pisu bat dauka. Datuek esaten dute egoera larria dela eta gazte asko beren burua erasotzen ari direla. Egoera horretan pieza asko daude eta mugikorra da horietako bat. Liburuan hiru faktoretan jarri dugu fokua.

Ados. Zein dira hiru faktore horiek?

MAITANE ORMAZABAL ETA TELMO LAZKANO

«NERABEEN GARRASIA.
OSASUN MENTALA
ALDAKETA GARAIAN»
LIBURUAREN EGILEAK

Ormazabal psikoterapeuta da eta haur eta nerabeen errealitatea sakon aztertu du. Lazkano, sare sozialetan eta pantailetan aditua. Bien artean egungo nerabeen garrasia identifikatzen saiatu dira, inori errua botatzeko baino, egoera ezagutu eta etorkizun osasuntsuagoa marrazteko.

[M.O.]: Garrasi edo sufrimendu hori zer den ulertzeko, testuingurua garrantzitsua da. Gaur egun haurrak eta gazteak burbuila emozional batean sartu ditugu, horrek dakarren guztia-rekin. Helduok ditugun beldur-retatik babestu ditugu, ez dugu nahi haiek sufritzea, sufrimendu guztia ekidin diegu eta orain ez dakite sufrimendu horri nola aurre egin. Sufrimendua ezin da ekidin, gizakian dago. Orduan, zer egin dute haurrek eta gazteek? Pantailaren aurrean kokatu dute beren burua eta hor, ustezko erreminta emozional horretan, gauzak bilatzen ari dira. Eta horrek sufrimendua areagotu egiten du.

Burbuila emozionalaz gain, bakardade sentimendu ikaragarria daukate. Ez dira entzunak sentitzen, inoiz baino kasu gutxiago egiten zaie. Askotan helduok txikikeriatzat hartzen ditugu haien arazoak. Gainera, argumentu sinplistetara joateko ohitura dugu; alferra da, ez du ezer egin nahi, pertsona txarra da, gaizki egin du... eta ez gara konturatzen horren guztia-ren atzean askoz handiagoa den zerbait dagoela. Nerabeen garrasia hori da, uler dezagun haien konplexutasuna. Nerabezaroa berez krisi garaia da eta orain, pantailekin, krisi hori areagotu egin da.

Hirugarren faktorea honakoa da; haien autoestimua eta identitatea sortzerakoan gero eta gaixotasun gehiago ari dira agertzen. Beti izan da zaila autoestimua sortzea, are gehiago nerabezaroan, baina gaur egun zaildu egin da. Zergatik? Pantailan idealizazio ikaragarria daukate eta inoiz baino bakardade handiagoa sentitzen dute.

Hiru faktore horien gainean dago nerabeen sufrimendua.

Eta sufrimendu horrek lau erpin dauzka: min emozional eta mental handia daukate, zama sentitzen dira, etsipena sentitzen dute eta beren buruaren etsai propioak izaten hasi dira. Imaginatu sufrimendu edo garrasi horren azpian zer dagoen.

Nerabeak pantailei itsatsita ikusi eta errua haiena dela esaten da askotan. Liburuan arkitektura sozialaren garrantzia aipatzen duzue.

[Telmo Lazkanok]: Arkitektura sozialak norbanako guztien garapenean dauka pisua, pertsona oro inguruarekin harremanetan garatzen baita, sistemekin. Lehendabizi familiaren sistema dago eta gero datoz besteak, ekonomikoa, soziala... orokorrean sistemen sistema batean bizi gara.


Norbanakoarengan eragin handiena dauka gertuen daukan sistemak, eta normalean hori familia izaten da. Autokritika egin behar dugu, pantailekiko mendekotasunak kausa izaera bat izan ohi duelako. Eta normalean horrela izango da, teknika teknologiko eta psikologiko oso indartsuak baitaude hori egia bihurtzeko, baina horrekin ohartzen garenean eta ezin dugunean erabilera hori hobetu, normalean esan nahi du ondoriozko izaera bat dagoela hor atzean. Zeren ondorio izan daiteke? Gure txikiek zer ikusi dute txiki-txikitatik? Jaten ez zutenean pantaila bat jartzen al zieten aurrean? Nork lasaitu ditu, gurasoen besarkada batek edo pantaila batek? Ondorioz, hortik aurrera zer bilatuko du lasaitzeko? Txupete digitala esaten dugu askotan, baina no-rentzat da? Txikiarentzat edo gurasoak lasai egoteko? Horri buruz hausnartu beharko genu-

ke. Nerabe bat sareetan arreta eske dabilenean, zergatik ote da? Bospasei ordu ematen ditu sarean, zer ari da hor bilatzen errealitatean ez duena? Badugu zer hausnartu. Helburua ez da errudunak topatzea, baizik eta erantzukizunak nondik datozen ikustea, hori baita etorkizun osasuntsu bat eraikitzeko bidea. Txanponaren bi aldeak hausnartu ditzagun; teknologiaren benetako izaera eta tes-tuinguruaren eragina.

Garunaren garapenaz hitz egiten duzue liburuan oso modu argigarrian. Zergatik gara hain moldagarriak nerabezaroan?

[M.O]: Haurra bere identitatea eta autoestimua garatzen ari denean, atxikimenduaren araber, bere gertukoekin, bere mikrosistemarekin egiten du. Bere garuna osatzen joango da ingurukoei begira. Baina nerabezaroan nerabea bere identitate propioa sortzera doa, konturatzen da bera ez dela bere gurasoak, ez dela bere laguna... eta hor haustura bat gertatzen da. Helduok asko mugitzen gaituen unea da, beldur asko sortzen zaizkigu eta askotan ez dugu uzten prozesu natural hori ondo joan dadin. Haustura horretan nerabea bere berdinekin identifikatzen da eta hor hasten da bere identitatea birsortzen. Orain gertatzen ari dena zera da; birsortze hori beste garun batekin, beste berdin batekin egin beharrean, mugikorra-ekin egiten ari dira.

[T.L.]: Garunaren garapena nerabezaroan sutsuki ari da kanpo estimuluak bilatzen, pentsatzen du dagoeneko inguruko garun horiek –gurasoenak adibidez– dagoeneko ezagutzen dituela eta kanpora begiratu behar du garapena emateko. Nerabezaroan aparatu emozio-



Argazkiak: Andoni CANELLADA | FOKU

«Garunaren garapen fasearen ondorioz, gure nerabeak ez dira gai beren ekintzen epe ertain eta luzeko ondorioak aurreikusteko, ezta inpulsi-bitate modu naturalean kontrolatzeko ere»



nalaren egoera ondorengo da: sentitzen dugun informazio oro sistema linbikoaren bitartez prozesatzen dugu. Bertan aurkitzen ditugu accumbensa –plazer bilatzailea– eta amigdala –arriskuak prebenitu nahi dituen–, eta bi horiei laguntzen, hipokanpoa. Hipokanpoa Google bilatzailearen antzekoa da, gure esperientzietan barrena ibiltzen da ahalik eta erabaki onena hartzen laguntzeko.

Adibide bat jarriko dut. Taberna batean gaude ligatzeko asmoz eta pertsona erakargarri bat ikusi dugu. Accumbensak garbi esango du, “hurbildu zaitetz, gozatzeko aukera duzu”. Amigdalak, aldiz, esango du, “kontuz, gogoratu azken aldiz horrela hurbildu zinenean zer gertatu zen”. Bitartean, hipokanpoa esperientzia horien bilaketan egongo da, informazioa bildu nahian, ea aurreko esperientzien antzik duen, berdin begiratu digun... hori guztia balantzan jarriko du cortex singulatuak, erabaki onena zein ote den hausnartu nahian.

Baina sinfonia neuronal horretan azken erabakia hartuko duena cortex prefrontala izango da, bera baita instantzia guztien berri daukana.

Noiz esaten da erabaki helduak hartzen ditugula? Bada, sinfonia neuronal horretan instantziek hitz egin behar dutenean hitz egiten dutenean eta isildu behar dutenean isildu egiten direnean. Aintzat hartu behar dugu garunaren garapena atzetik aurrera ematen dela eta atzeko partean instintu primitiboak dauzkagula. Nerabezaroan accumbensak agintzen du, bera dago garatuena. Aldiz, amigdala, hikopanpoa eta batez ere cortex prefrontala garatzeko daude. Ondorioz, gure nerabeak ez dira gai beren ekintzen epe ertain eta luzeko ondorioak aurreikusteko, ezta inpulsi-bitate modu naturalean kontrolatzeko ere. Ondorioz, mugikorraren erabilera egoki bat egitea oso zaila da. Garunaren garapen hori emateko beste garun baten beharra du eta haren ispilu bezala joka-

tuko du. Kasu honetan garun artifizial bat izaten ari da. Hortik datoz gaur egun gertatzen diren dinamika asko.

Liburuan nerabeak autonomiarantz egin beharreko bidea nabarmentzen duzue eta gurasoek bidaide izateko modu desberdinak biltzen dituzue, animaliekin parekatuz. Adibide argigarriak dira.

[M.O.]: Esan beharra daukagu ez dagoela ideal bat. Errealak izan behar dugu. Egia da guraso batek liburu hau irakurtzen duenean errua sentitzen duela eta gaizki sentitzen dela, eta hori ez da helburua. Helburua da konturatzea zer ari den gertatzen, non gauden eta zer aldatu dezakegun.

Animalien konparaziora etorrita, bi zatitan banatzen dugu ariketa; konduktualki eta emozionaliki. Konduktualki, kangu-ruak izan gaitezke. Bere txikia barruan eta babesean eramaten du, eta gaur egun joera hori asko ikusten da, lehen aipatu dugun burbuila emozionala

adibide honetan dago. Kontrol handia daukagu eta irudituko zaigu beti egongo dela norbait gure txikia babestuko duena. Eta mundu honetan gauza ziurrik ez dago.

Bestea errinozeroa da, gogorragoa, dena autoritatearen bidez egiten duena. Autoritatea behar dute, mugak behar dituzte, baina neurrian, emozionaltasuna mugatu gabe. Eta bestea izurdea da, atzean edo alboan. Ez dago une oro begira, utzi egiten dio bere txikiari aurretik joaten, baina ondoan dago. Eta gaur egun nerabe askok sentitzen dute ez dagoela inor ondoan. Epaitua sentituko da, gehiegi babestua edo lagundua. Hiruretan, izurdea da osasuntsuena.

Emozionalki, berriz, adibiderik egokiena San Bernardo zakurra izatea da. Sendoa, lasaia, baina ondoan egoten da eta babesa ematen du. Nola gaude helduak? Oso mugituta. Eta gazteek sostengua behar dute, norbaitek mugak jartzea nondik nora joan jakiteko. Gaur egun gu oso mugituta gaude, dena da lanbroa.

Beste bi animaliak ostruka eta medusa dira. Ostrukak ez du ezer ikusi nahi, ez du konturatu nahi, autoengainatu egiten da. Medusa, aldiz, gardenegia da. Bere bizitzan pasatzen den karga emozional guztia bere txikiei transmititzen die, eta hori ere ez da. Helduak bere burua sostengatu behar du. Erakutsi bai, baina ez jarri karga guztia.

Beraz, konduktualki izurdea eta emozionalki San Bernardoa izatea da egokiena, edo horietara joatea behintzat. Ez da erraza, baina poliki-poliki joan gaitezke animalia hauen antza hartzen.

Guraso izateko modua aldatu da. Liburuan aipatzen duzue guraso perfektua izateko ob-

sesio bat. Badago krisi bat horretan ere, ezta?

[T.L.]: Nik uste dut erakusleiho batean bizi garela. Gure ekin-tza guztiak guztien begien aurrean jartzen ditugu eta horrek ikaragarri baldintzatzen gaitu.

Bestetik, liburuan ere aipatzen da beste fenomeno bat. Errealitatearekiko sortu dugun pertzepzioa ez da oso zilegia. Gizarte oso anker batean bizi garela uste dugu, oso arrisku-tsua dena, eta hezitzaile bezala berezkoak ditugun beldurrak are handiagoak bihurtu ditugu. Eta beldur hori ekintzetara pasatzeko tresnarik eraginkorrena eskura utzi digute: teknologia. “Oso herri zail eta arriskutsu batean bizi naiz eta eskura daukat *smartwatch* bat nire haurra non dabilen jakin ahal izateko; bada, erabili egingo dut”. Hori da gertatzen dena. Gero eta presio handiagoa dago guraso on bat izateko eta horrek eragina dauka.

[M.O.]: Kontrola galdu dugu. Beldurraren eta kontrolaren gizartean bizi gara, eta gure nerabeak horren ondorio dira.

«Gure seme-alabak artelan bat bezala irudikatzen ditugu eta ahalik gehien kontrolatu nahi ditugu –erlojuak, mugikorrak...–, guk nahi dugun bide horretatik ez daitezen urrundu. Gure nerabeak diren hori izango dira eta gu, guraso bezala, garen hori izango gara»

Guraso bezala oso epaituak sentitzen gara, idealizazio handia gertatu da eta oso espektatiba altuak ditugu. Gure seme-alabak artelan bat bezala irudikatzen ditugu eta ahalik gehien kontrolatu nahi ditugu –erlojuak, mugikorrak...–, guk nahi dugun bide horretatik ez daitezen urrundu. Gure nerabeak diren hori izango dira eta gu, guraso bezala, garen hori izango gara. Goazen denon artean hau guztia hobeto egitera, baina kontrolaren eta beldurraren bidez min handia egin dezakegu.

Liburuan sare sozialen limurtze teknikak xehe deskribatzen dituzue. Casinoetako tekniken antza daukate eta helburua da erabiltzailea ahalik eta denbora gehiena ego-tea pantailari lotuta.

[T.L.]: Teknika psikologiko eta teknologiko horiek denak xehe-xehe azaltzen dira liburuan. Zerbait erosteko orduan, mesfidantza pixka bat izaten dugu eta saiatzen gara ziurtatzen ea material egokia duen,

garantia duen... hori gertatzen da nolabait ordaindu egin behar dugulako. Baina zer gertatzen da mesfidantza horrekin produktua dohain eskaintzen digutenean? Desagertu egiten da eta fidatu egiten gara. Sortzen eta mantentzen izugarri garestiak diren aplikazioak zergatik eskaintzen zaizkigu doan gutako orori une orotan? Eta zerbait dohainik eskainiz nola bihurtu dira munduko aberatsenak enpresa teknologiko hauek guztiak? Galdera zera da: dirutan ordaindu ez badugu, nola ordaindu dugu? Produktua ordaintzen ez duzun unetik zu bihurtzen zara produktu. Eredu honi arretaren ekonomia esaten zaio. Gero eta denbora gehiago pantailaren aurrean, guri buruzko informazio gehiago eskuratzen dute eta guregan manipulazio ahalmen handiagoa dute. Hori da saltzen dutena. Gure arreta finitua da eta eredu ekonomiko horretan enpresa asko dabil-tza lehian. Horregatik, teknika psikologiko puntakoenak erabiliz gure arreta ahalik eta gehien eskuratzen saiatzen dira eta albo-ondorioek ez dute axola.

Depresioa, antsietatea, elikadura nahasmenduak. Lehen ere baziren nerabeen artean, baina datuek diote asko areagotu direla.

[M.O.]: Asko. Garai bakoitzak bere arazoak ditu, bere minak, beharrak... Orain arte ‘umeen gauzak’ balira bezala hartu dira. Orain geratu eta erreparatu behar dugu hau guztia benetan gertatzen ari dela, datu eta zifra bakoitzaren atzean pertsona bat dagoela, sufritzen ari dena. Laguntza eskatzen ari den lehen belaunaldia dira eta ikaragarritzko urratsa da. Gertatzen ari den guztiak balio badu behingoz osasun mentalari eta





emozionalari behar duen tokia emateko, ona izango da. Gazte asko abandonatuta sentitzen dela esaten dugunean ez gara esaten ari kalean utzi dituztenik. Akaso seme-alaba abandonatzea da AEBetara bidaltzea ikastera, beretzat onena delakoan. Akaso berak behar duen bakarra gurasoen ondoan egotea da. Helduak sagarrak eskaintzen ditu eta nerabeak madariak eskatzen ditu, biek intentzio onenarekin. Horregatik hasi dira garrasika. Gaitz hauek guztiak lehen ere baziren, baina ez ziren azaltzen. Orain gaitz horien inguruan hizketan hasi gara eta hori ona da. Baina adinean asko ari dira jaisten, hori da errealtatea. Osasun mentaleko arazoez gora egin dute eta adinean asko jaitsi dira. 7-8 urteko haurren autolesioez ari gara; elikadura nahasmenduak ere asko jaitsi dira adinean.

[T.L.]: Mundu mailan eta batez ere mendebaldeko herrialdeetan gertatzen ari diren patologiak dira. Datuak oso latzak dira. AEBetan adibidez 15-19 urte bitarteko nesken artean beren burua zauritu dutenen kopurua %62 handitu da sare sozialen etorreraz geroztik. Eta 10-14 urte bitartekoen artean %189 handitu da, eta Covid aurreko datuak dira. Era berean, %70 egin du gora 15-19 urte bitartean beren buruaz beste egin duten pertsonen kopuruak, eta %151, 10-14 urte bitartekoen artean.

Mugikorraren faktorea puzzle oso konplexu baten pieza bat da, baina ez kausa bakarra. Bestelako pieza horiek azaltzen saiatu gara liburuan.

Datu latzak entzunda, ireki diezaiozun leihoa esperantzari. Nerabeek garrasi egin

«Bizitzara atera behar dugu. Beste bizitza paralelo bat sortu dugu mugikorraren atzean eta hor ez dago bizitza erreala, kanpoan dago. Baina batzuetan kanpoko horrek nolako beldurra ematen digun. Kanpoko hori bizi behar dugu, gauza zoragarriak daude, baita txarrak ere, bizitzak denetarik duelako»

dute, jendartea entzuten hasi da. Eta orain, zer?

[M.O.]: Entzute aktibo handi bat behar dute nerabeek, ondoan behar gaituzte inoiz baino gehiago. Gurasoen artean eta eskoletan sortu diren mugimendu horiek ikusita, uste dut konturatu garela teknologia horiek guztiak gu urrundutuztela eta mugikorra gerturatu, eta horri buelta eman behar zaio. Mugikorra urrunduta gu gerturatu beraiengana. Nerabeekin lan egiten dugunok badakigu desiratzen daudela hitz egiteko, gauza asko egiteko, baina askotan ez dakite nola egin. Eta hor sartzen gara gu. Gaitasun eta konpetentzia digitalak eta emozionalak behar dituzte. Eta horretarako gaude gu, horretarako behar gaituzte.

[T.L.]: Ezezagutzak beldurrarekin jokatzera eramaten gaitu. Covid garaian garbi ikusi zen hori. Aldiz, ezagutzak eta informazioak errespetuz jokatzera eramaten gaitzake. Nerabeekin eta teknologiarekin berdin gertatu da, ikaratu egin gara, baina jada ezagutza barneratzen ari gara eta zentzuz jokatzeko hasi behar dugu. Osasun mentalaren eta mugikorraren auzi honetan bost zutabe nagusi marraztu ditugu beldurretik errespeta pasatzeko.

Ados, zein dira bost zutabe horiek?

[T.L.]: Batetik, adina errespetatzea funtsezkoa da. Lehen aipatu dugu garunaren une ebolutiboa, aparatu emozionala nola dagoen, eta garapen horrek denbora behar du. Baina adina atzeratzeak ez du ziurtatzen erabilera egokia izango denik. Heziketa integrala beharrezkoa da, bai teknologiararen erabilera irakatsiko diona eta baita txanponaren beste aldea erakutsiko diona ere; zein teknika, interes eta ondorio dauden.

Horrekin batera, helduok bidelagun eta eredu izan behar dugu, ezin diegu eskatu gu egiteko gai ez garenik. Eta elkartu egin behar gara, familiak, eskolak, erakundeak... horrek sekulako indarra ematen digu. Laugarren zutabea legeria koherente bat bultzatzea da, eta aplikazio seguruagoak ere behar dira. Hemen batzuk galdera kritikoa botatzen dute: autoa sortu zuenari leporatu behar zaizkio auto-istripuak? Bada, seguruenik ez. Baina merkatuak auto seguruagoak eskatu ditu eta gero eta auto seguruagoak ditugu. Demagun merkatu arrazoi bat dela eta ez direla ari auto seguruak egiten, nahiz eta egiteko mo-

dua izan. Orduan, izango lukete erantzukizuna, ezta? Bada, hemen berdin-berdin gertatzen da. Aplikazio seguruagoak egin daitezke, gertatzen dena da merkatu arrazoiengatik eta arretaren ekonomian oinarritzen direlako –beren arteko lehia oso sutua delako–, ez dituztela pauso horiek ematen. Goazen legeria koherente batekin urrats horiek behartzera. Ari gara Europa mailan, eta AEBetan ere duela gutxi Meta enpresa auzipetu dute 41 estatu federalek nerabeen artean mendekotasuna sortzen ari zelako eta buru gaixotasunak bultzatzen ari zelako.

Ez dakit zein unetan normalizatu dugun logika algoritmi-ko hauen bitartez Blackout Challenge bezalako erronkak zabaldu izana eta lehen astean zortzi haurren heriotza eragin izana, aplikazioak inolako erantzukizunik izan gabe. Bada garaia erakundeen aldetik honi aurre egiteko.

Eta, azkenik, beste zutabe bat; inteligentzia emozionala garatu behar dugu kanpo garapen horri eusteko.

Liburuan jolas librearen garrantzia aldarrikatu duzue; etxetik egitekorik gabe kalea ateratzea eta kaleko argiak itzali arte ez bueltatzea.

[M.O.]: Bizitzara atera behar dugu. Beste bizitza paralelo bat sortu dugu mugikorraren atzean eta hor ez dago bizitza erreala, kanpoan dago. Baina batzuetan kanpoko horrek nolako beldurra ematen digun. Kanpoko hori bizi behar dugu, gauza zoragarriak daude, baita txarrak ere, bizitzak denetarik duelako. Pantailetatik atera behar dugu, guztiak berriro bizitzari balioa emateko eta bizitza miresteko.



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



Aski gutxi denean inoiz ez da aski

**Maider IANTZI
GOIENETXE**

Marta Peiranoren “El enemigo conoce el sistema” irakurri dudanetik, sudur kritikoz usaintzen ditut hainbertze maite ditudan txokolate, kafe eta ogi egin berriaren aroma kaleraino zabaltzen duten kafetegiak. Antza denez, gehienetan difusore batetik ateratzen dira lurrinak, eta horri esker, %300 goititzen dira salmentak.

Usainen bidez, behar duguna baino puskaz gehiago jan dezagun lortzen dute. Erraza da, milaka urte daramalako gizakiak eskasia kudeatzen, baina ez oparotasuna. Koipea, gatza eta azukrea nahasiz gozotasuna handitzen da, eta horrekin jokatzeko du industriak. Lau enpresak ekoizten omen dituzte munduan

erosten ditugun usain eta zapore guztiak. Givaudan, Firmenich, International Flavors & Fragrances (IFF) eta Symrise dira. Ohikoa den bezala, beren irudiak ez du zerikusirik eskaintzen duten produktuarekin. Gure zaporerik gogokoenak birsortzen dituzte, haurtzaroko usainak. Herriaren arabera desberdinak.

Erraten da usaimena dela beharbada gutxien baloratzen dugun zentzumena, baina sakonen eta zuzenen eramaten gaituena denboran eta espazioan edozein puntutara, tximista baten abiadan. Bakoitzak ditu bereak. Sandwich egin berri bat, gazta urtua bazterretatik isurtzen zaiola, krus-krus egiten duen ogi txigortuarekin, edo natilla bat paxintxiekin. Ikusten? Koipea, gatza eta azu-

krea. Amatziek denak nahasian paratzen zizkiguten mahaian, eta guk zenbat eta gehiago jan, kontenago jartzen ziren. Guk ez bezala, eskasia sufritu zuten.

Aunitz oroitzen ari naiz beraiekin, eta ilusioa egin dit ohartzeak haiengandik jaso dudala janariaren goxotasuna eta garrantzia. Kontrolik gabe kontsumitzeraz garmatza bizi garen sistemak, janaria eta gauza guztiak, gehienoi eros ahalmena txikitzen ari zaigun bitartean. Hito Steyerl artistak dioen bezala, lurrik ez badago gerta liteke erortzen ari zarela ez konturatzea ere, grabitatea txikiagoa izan daiteke eta arin senti zaitezke jendarte osoak erortzen ari direlarik, zu bezala. Rexu eta Beni, eskutik hartuko zaituztet «uuumm» egiterakoan. •

21 urte!

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

21 urte joan dira bikoteak eta seme-alabek kotxe istripua izan zutenetik. Konstituzio egun madarikatu hartan, hain zuzen! Bi astera, lau eta zazpi urteko haur biak onik irten ziren ospitaletik. Zurrumbilo ero haren guztiaren emaitza bikoteak burmuina betiko kaltetu izana da. Bera izan da kaltetu zuzenena, bizirik bai baina bizi nahi zuen bizitza bizitzerik gabe. Halere, zoriontsu sentitzearen eta frustratzearen arteko borrokan gehienetan irabazle ateratzen ikasi du.

Gogoan dut iruñear lagun batek egun ilun haietan esana, «orain hik eutsi behar diok, hi ezin haiz erori, bestela bat

ez lauok eroriko zarete». Betiko iltzatu zitzaidan argi hura energia iturri izan dut geroztik.

Ene buruari egiten dizkiodan galderek erantzun argia eta berehalakoa izaten dute. Zer nahi dut? Bizitza zukutu; minutu bakoitza bizi; maitatzea eta maitatua izatea; finean, sentitzea... Nola? Neroni zainduta, etxekoak hobe ditut zainduko-eta, ongi sentitzen banaiz.

Dema horretan asko lasaitzen nau Aurretiazko Borondateen Dokumentua (ABD) egin izanak. Iruñeako ospitalean izan nuen haren berri 2003an. Adibidez, niretzat hil ala bizikoa da jasotzea “...eutanasia aktiboko teknikak aplikatzea

nahiko nituzke, minik gabekoak eta azkarrak”. Arrazoiak sobera daude mundu guztiak berea egin dezan.

Bizitzaren abiada biziak eta eguneroak automata bilakatzen gaitu, zentzuak itzaltzen dizkigu, usaintzen ez, ikusten ez, entzuten ez, sentitzen ez dugun gorpil zoroan doazen makinak bagina bezala. Orain 21 urte gertatuak begiak ireki zizkidan eta eguneroko gorpil zoroa hausten lagundu. Bada, kolpe latzik jaso beharrik gabe, heldu tinko zure bizitzaren lemarri; “...bizitzak ez dit ematen” egoera apurtu, hasi zerorri zaintzen eta abiatu bizitzari eskatzen diozunaren bila. •

ZIBERIRUZURREN SOFISTIKAZIOA

Adimen Artifizialarekin, erasoak eraldatzen ari dira: testu pertsonalizatuagoak idazten dira, identitatea ordezteko

Gabonetako ospakizunen etorrerarekin, erosketa fisikoak zein internet bidezkoak ikaragarri hazten dira. Deloitte egindako ikerketa baten arabera, iazko kanpainan egindako erosketen %25 Internet bidez egin ziren. Baina Adimen Artifizialaren alde ilunaren gorakadaren ondorioz, gero eta neurri gehiago hartu behar dira horrelako erosketak egiterako orduan.

«Adimen Artifizialak iraultza dakar arlo askotan, eta ziberiruzurren munduan ere eragina du, noski. Erasoa sofistikatuagoak dira, erasoak egiten dituztenek testu pertsonalizatuagoa idatz baitezakete, nortasuna ordezteko eta ingelesez *phishing* izenez ezagutzen dena egiteko, gaizkile berriak sartzea errazten duten hizkuntza berrietan birus gehiago sortzeko, dirua teknika berriein eskatzeko, hala nola hipertrukatzea (*deep fake* ingelesez) —teknika horiek irudiak, bideoklipak eta audioak konbinatzen, ordezen eta gainjartzen dituzte, benetakoak diruditen multimedia fitxategi faltsuak sortzeko—, edo beren eraso-estrategiak denbora errealean ahalik eta ondoen egokitze», ohartarazi du Laia Subirats Unibersitat Oberta de Catalunya (UOC) Informatika, Multimedia eta Telekomunikazio Ikasketetako irakasleak.

Zibersegurtasunaren munduan lan egiten duten espainiar Estatuko INCIBE bezalako institutuek oinarritzko aholku batzuk ematen dituzte erosteko orduan, hala nola, posta

elektroniko, SMS edo WhatsApp bidez eskaintzen diren “sariekin” kontuz ibiltzea; erosi nahi den webgunearen informazioa bilatzea; ordaintzeko aukera seguru batzuk daudela egiaztatzea, edo banku-txartelen mugimenduen jarraipena egitea.

EAEn, Basque Cybersecurity Centre delakoa ipini dute martxan, Nafarroan ere Navarra Cybersecurity Center delakoa lehen urratsak egiten ari da. Eta nazioartean, National Cybersecurity Alliancek, adibidez, tresna erabilgarriak eskaintzen ditu, hala nola softwarearen eguneratze automatikoak aktibatzea edo wifi sare publiko batera konektatuta zaudenean erosketak egitea saihestea.

DATU ESKAERAK, QR KODEAK...

Erosketek gain, herritarrek ere erne egon behar dute, Adimen Artifizialarekin garatutako ziberiruzurren biktima ez izateko. Ildo horretan, Subiratsek gogorarazi du espainiar Estatuan dagoeneko badirela hala-koak jasan dituzten pertsonak: «Zibersegurtasuneko Institutu Nazionalak (INCIBE) ohartarazi zuen ziberdelitugileek Zerga Agentziaren itxura hartzen zutela, isunekin mehatxatzen zuen jakinarazpen bat bidaltzen zutela, kode maltzurra zuten artxiboak deskargatzera behartzen zutela eta erabiltzen ari zen gailua infektatzen zutela», gogoratu du irakasleak.

Badira beste kasu berriago batzuk ere: ziberdelitugileek X sareko (garai bateko Twitter) erabiltzaileek publikoki laguntza eskatzen dutela baliatu izan dute iruzur egiteko, edo

TEKNOLOGIA / GAUR8


Ikerketa desberdinek argi erakusten dute delitu informatikoen kopurua gora egiten ari dela nabarmen urtetik urtera. Eta Adimen Artifizialak zaildu egin dezake iruzurak detektatzeko lana. Internet bidezko erosketak ugarituko diren egunotan, komeni da gaur egungo joera nagusien azterketa bat egitea.

QR kodeak dituzten iruzurak antzeman dira tabernetan edo jatetxeetan (*qrishing* izenez ezagutzen dena). «Horregatik da hain garrantzitsua agentzia desberdinen zibersegurtasuneko joerak, albisteak eta gomendioak jarraitzea eta herritar guztiek jardunbide egokiak erabiltzea», azpimarratzen du Subiratsek.

Baina herritarrak ez dira erne egon behar duten bakarrak, adituak gogorarazi duenez, Adimen Artifizialarekin egindako zibereraso askoren jomugan erakundeak baitaude. Subiratsen arabera, kaltebertasunak detektatu ahal izateko, ziberiruzurak prebenitzeko eta detektatzeko politikak izan behar dituzte, hala nola baliabideen eta trafikoaren monitorizazioa, anomalien detekzioa, auditoriak egitea, softwarea maiz eguneratzea edo pirateatze etikoa sustatzea (*ethical hacking* ingelesez). «Zibererasoei aurre egiteko, paradoxikoki oso baliagarria da Adimen Artifizialaren azken teknikak erabiltzea», azaldu du espezialistak.

Espainiar Estatuan, aurreko urtean baino % 22,7 ziberdeli-

Gabon garaian asko ugarituko dira internet bidezko erosketak.
GETTY IMAGES



Adimen Artifizialak ziberiruzurren munduan ere eragina du. Erasoak sofistikatuagoak dira, testu pertsonalizatuagoak idatz daitezke, nortasuna ordezteko adibidez


Espainiar Estatuan aurreko urtean baino % 22,7 ziberdelitu gehiago izan dira 2022an, eta ia 375.000 delitu informatiko izan dira, barne ministerioaren txostenaren arabera

tu gehiago izan dira, eta ia 375.000 delitu informatiko izan dira. Halaxe dio barne ministerio espainolak 2022ko “ziberkriminalitateari” buruz egindako txostenak. Eta ikerketak argi erakusten du joera goranzkoa dela nabarmen: 2018an 160.729 izan ziren, 2019an 218.302, 2020an 287.963, 2021ean 305.477 eta 2022an 374.737.

«Erasoen bolumen horrekin, ezinbestekoa da enpresek zibersegurtasunean adituak diren profesionalengan inbertitzea beren burua babesteko, eta langile guztiak trebatzea erakundean segurtasun-kultura ona har dezaten», ohartarazi du UOC-eko irakasleak.

Gainera, eta pentsa litekeenaren kontra, ziberdelituen biktimak ez dira adineko pertsonak soilik izaten, aipatutako txostenaren arabera. Datuak tentuz hartu behar diren arren, salaketa ipini zuten pertsonen kopuru handiena 26-40 urte artekoa zen (81.832). 51-65 adin tartean kopurua 72.520koa izan zen –egia da seguruena erabiltzaile kopurua txikiagoa izan litekeela tarte horretan–.

Ildo horretan, Subiratsek gogorarazi du 2022ko irailean European Union Agency for Cybersecurity (ENISA) erakundeak enpresek izan beharko luketen zibersegurtasun-profilen zerrenda bat argitaratu zuela. Enpresa txiki eta ertainen kasuan, PIMEC patronalak protokolo, zerbitzu, aseguru eta zibersegurtasuneko tresnei buruzko gomendioak ere ematen ditu. «Funtsezkoa da erregulazioaldaketekin eguneratuta egotea, bereziki kritikotzat jotzen diren sektoreetako erakundeak, osasun-sektorea adibidez», amaitu du irakasleak.



Datu finantzarioak webgune fidagarrietan bakarrik sartu behar dira. GETTY IMAGES

INTERNET BIDEZ EROSKETAK EGITERAKOAN GOGORATU BEHAR DIREN BOST GOMENDIO

Gabon garaia datorrenez eta internet bidezko erosketak ugartu egingo direla jakinda, komeni da INCIBE institutuak plazaratzen dituen bost gomendio nagusiak kontuan hartzea.

Lehenik eta behin, kontuz ibili posta elektronikoko, SMS, mezularitza-aplikazio (Telegram edo WhatsApp) edo sare sozial (Instagram edo X) bidez jasotzen diren kupoiekin, zozketekin eta Gabonetako sariekin. Egun hauetan, iruzurra diren mezuak ugartzen dira, erabiltzaileak ustezko zozketa, sari eta abarretan parte hartzera gonbidatuz. Zibergaizkileek erabiltzaileen datu pertsonalak eta finantzarioak lortzeko erabiltzen duten teknika besterik ez da.

Bigarrenik, datu pertsonalak eta bankuko datuak eman aurretik, egiaztatu datuak sartzeko ataria beti protokolo seguru baten bidez zifratuta dagoela. Fidagarriak diren dende segurtasuna eskainiko dute beti HTTPS protokoloa erabiliz egiten diren transakzioetan. Hala ez bada, baztertu webgune horretan erostea eta bilatu beste aukera bat.

Hirugarren gomendioa: informa zaitez apur bat erosketak egin behar duzun webguneari eta saltzen duen konpainiari

buruz. Bilatu oinarritzko informazioa, helbide fisikorik baduen, telefonoa, arduradunak, IFZa eta, beharrezkoa bada, deitu enpresari egiazkotasuna egiaztatzeko.

Laugarrena: ziurtatu online dendaren barruan ordaintzeko hainbat metodo daudela. Adituek beti gomendatzen dute ordainketa metodo seguruak erabiltzea, hala nola Visa, MasterCard, Apple Pay edo PayPal, gaur egun ospe ona duten webguneetan horrelako transakzioak egiteko eskaintzen ari diren bide nagusiak. Beste aukera on bat aurreordainketako txartelak edo diru-zorro birtualak erabiltzea da, bankuek bezeroei eskaintzen dizkietenak.

Eta azkenik, gogoratu txartelaren mugimenduen jarraipena egin behar dela. Interneten erosketak asko edo gutxi egin, egiaztatu egin dituzun mugimendu guztiak zuzenak direla eta ez dagoela ezer arrarorik. Halakorik balego, galdetu nondik datozen, eta identifikatzen ez baduzu, hitz egin zure banketxearekin, garaiz egin daitezkeen iruzurrak identifikatzeko.

Azken batean, zentzuz jokatzeko eskatzen dena, eta ez erosketen kasuan bakarrik. Beharrezkoa ez den daturik ez ematea eta fidagarriak ez diren loturak ez klikatzeko, horra hor bi gako nagusiak.



Maitena USABIAGA SARASUA
Sexologoa eta psikologoa

Harreman neoliberalak



Ni, ni eta gero, ni. Bada korrante bat «moderno» eta «aurrerakoien» ahotan asko entzuten dena. Ideia multzo, korrante, filosofia, ideologia (ez dakit nola deitu)... honen ezaugarri nagusia zera da: nire behar eta nahiak asetzeko eskubidea dut eta hori da nire eginkizun nagusi eta garrantzitsua. Uste dugu, ni-tik hitz egitean ez dugula inor epaitzen eta zilegitasun guztia dugula gure nahiak, usteak eta iritziak eman eta adierazteko: «Ez hartu gaizki e, nik horrela sentitzen dut» esaten dugu. Uste dut arazo nahikotxo ditugula sentitu eta pentsatu artean dauden desberdintasunak ikusteko, baina hori beste gai bat da.

Niaren filosofia honek limite argi eta zurrana sortzen du ni eta zu-ren artean, erraz desberdindu daitezkeen entitateak izango balira bezala. Gainera, Zu Eta Ni izan beharrean, askotan Zu edo Ni bezala irakurtzen ditugu harremanak, nire interesak defendatzeko betebeharra dugula uste baitugu. Eta ez hori bakarrik, harremanetan Gu bat existitzen dela guztiz ukatzen dugu ideologia honetatik. Hiru izan beharrean (Ni, Zu eta Gu), bat gehi bat izatera mugatzen gara gehiegitan.

Merkatuan bezalaxe, norbere interesak, beharrak, nahiak asetzea da helburu nagusi eta bakarra. Erregulaziorik gabe baldin bada, hobe, eta besteengan duen eraginaren ardura guztiz alde batera utzita, noski. Nik uste badut zu nazkagarri bat zarela, esateko eskubide eta, zer demontre, betebeharra dut. «Ah, hori da pentsatzen dudana», «nire iritzia hori da», «iritzi guztiak errespetatu behar dira»... eta horrelako esaldien atzean ez kutatzen gara. Gure iritzi eta ekintzek besteengan eraginik ez balute bezala jokatzeko, eta gainera, eragina baldin badu eta min egiten badio, bestearen ardurapean erortzen da zauria: «Zerbait ukitu dizu esan dizudanak, lanketa egin beharko duzu». Uau, ederra tranpa, eta nire uste apa-lean, a ze biolentzia.

Gu-a krisian dagoela jakin badakigu. Gu garen heinean, mikrotik makrora, ardura dugu besteengan. Horrelako sinplea da. Ezin dugu nahi duguna esan eta egin, «nire iritzia da»-ren izenean, eta ondorioz ez jaso nahi izan. Hori tranpa da. Nahi duguna esan, bestearengan mina eragin dugula ikusi eta «zure ardura da» esatea tranpa da.

Bestearen minean inplikazioa dugu, eragin egiten diogu elkarri. Horrek ez gaitu arduradun bakarrak bihurtzen, ezta gutxiago ere. Polo batetik bestera pasatzen gara erraztasun gehiegirekin; zure zoriontasunaren arduradun izatetik, zure minaren indiferentziara. Arlo askotan bezalaxe, kontua ez da zu edo ni-ren artean aukeratzea. Ez da zer den ona edo txarra. Zu eta Ni gara, onak eta txarrak, ausartak eta beldur-
tiak... denetarik. Gainera, harremanek badute ezaugarri be-
rezi bat; zu, ni eta Gu garela.

Gu-a elikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuet. Harremana bere osotasunean ikusi eta zaintzera, goxatzera, begiratzera. Gu izateak ez nau neure burua sakrifikatzera eramaten, bestea ere hor dagoela kontuan hartzera baizik. Ardura hartzeak ez digu askatasuna kentzen, bestearen askatasuna zaintzera eramaten gaitu. •



Bestearen minean inplikazioa dugu, eragin egiten diogu elkarri. GETTY IMAGES

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ANSELMO GOÑI NAGORE. IRUÑEKO UDAL ARTXIBOA.

DILIGENTZIA-AUTO BAT IRUÑETIK IRTETEN, 1900. URTEAN

1900. urtean gaude, mende aldaketa betean. Argazkian, diligentzia-auto bat ikus daiteke, Irunberrira eta Zangoztara bidean, Iruñetik irteten. Irudi berezia da, beste garai bateko arratsalde eguzkitsu batean egina. Bidaiariak autoaren barruan zein goiko aldean doaz, ekipajearen ondoan. Kotxea pasatzea ia ikuskizun bat da, txakur bat zaldien ondoan korrika dabilela. Bertan dauden oinezko gutxi horiek bidaiariei begira daude, eta argazkiaren hondoan, berriz, inude bat ikus daiteke, bere haur-kotxetxoarekin paseatzen. Argazki honen egilea Anselmo Goñi Nagore da, jakitun izan gabe duela 100 urte baino gehiago garai hartako bidaiak nolakoak ziren erakusteko testigantza paregabea utzi digun argazki-zalea. Anselmo Goñi medikua eta Iruñeko Udal Ongintzako burua izan zen, eta haren irudi gehienek Nafarroako hiriburuko hiri-paisaiara hurbiltzen gaituzte.

Lurralde
berrietara
goaz

bidaiari

Hilabetero zure kioskoan **naiz:** -en bidai aldizkaria euskaraz

